



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 22a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena, klausula administratiboan agiritan klausula sozialak sartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, lan elkartuko mikrokooperatibei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina ematekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).
- Foru Lege proposamena, amatasunaren babesa ezarri eta arautzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerapausoak eman ditzan Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa ereduak ezartzeari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Gobernuaren Ordezkaritzak darman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile publikoekin bete dezan mendekotasunagatiko prestazioak eskatzen dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa baloratzeko zerbitzu pribatizatua. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan diruz lagundu ikasleak sexuaren arabera ikasgela desberdinetan bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan ematen diren irakaskuntzak. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiazko parte-hartze publikoko prozesu bat abiaraz dezan, Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuaren aldaketa egiterakoan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—3/2014 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 190/1992 Foru Legea aldatzen duena (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena, klausula administratiboen agirietan klausula sozialak sartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko foru legea onetsi zuen: "Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena, klausula administratiboen agirietan klausula sozialak sartzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena, klausula administratiboen agirietan klausula sozialak sartzeko

ZIOEN AZALPENA

Estatu sozial batean, botere publikoen jardunean aintzat hartu beharreko kontua da pertsonen garapena bermatzeko gutxieneko bizi-baldintza batzuk finkatzea.

Krisi ekonomikoak kalte handia eragin du lan-merkatuan. Langabezia hazi egin da, eta enplegua dutenen lan-baldintzak kasu askotan murrizketa handiak ari dira jasaten.

Horrenbestez, Parlamentu honi dagokio Nafarroako Foru Komunitateko lan-merkatuari ahal den egonkortasun handiena emateko formulak bilatzen saiatzea. Hain zuzen, kontratazio publikoa jardueira ekonomiko garrantzitsua da, eta beronetan botere publikoek esku har dezakete, kontratueterako gutxieneko baldintza batzuk ezarri. Enpresa pribatuetan jardunda ere, langile askok dihardu zeharka sektore publikorako, Kontratu Publikoei

buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen babesean eginiko kontratazioen bidez.

Lege hori da, hain zuzen, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea alegia, izaera sozialeko eskakizun xeheak sartzeko aukera ematen duten mekanismoak jasotzen dituen.

Beraz, beharrezko jotzen dugu Nafarroako Sektore Publikoan kontratista diren enpresentzat lan egiten duten beharginengan eragin zuzena duten bi arazo motari heltzeko mekanismoak ezartzea. Batetik, aplika daitezkeen lan-baldintzei buruzko segurtasun eza; hau bideratzeko gutxieneko baldintza gisa finkatzen dira –nahikoak eta bidezkoak direla uste izanik– enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikieneko azken lan-hitzarmen sektorialekoak. Bestetik, enpleguaren ezegonkortasuna, izan ere, langile askoren itxaropen laborala lotuta baitago enplegatzaileak sinatu duen kontratu publikoaren iraupenarekin; honi aurre egiteko exigentzia bat sartzan da, enplegua mantentzea, alegia, enpresa kontratista aldatuagatik ere.

Horretarako, kontratu publikoa egiteko prozesuan derrigor bete beharreko eduki gisa finkatzen da izaera sozialeko eskakizun jakin batzuk sartzeari. Betebehar hau Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoa parte den esleipen-prozesuetako baldintza-agirien bidez gauzatuko da. Baldintza-agiri horietan, derrigor bete beharreko izaera sozialeko eskakizun gisa finkatuko dira, gutxienez, sektoreko esparru txikieneko lan-hitzarmen probintzialeko baldintzak errespetatzea, eta langileak subrogatzea enpresa kontratista aldatzen denean, nahiz kontratistak bere jardueira beste batekin azpikontratatzan duenean.

Aipatutako klausula sozialak urratu direla egiaztatuz gero, Administrazioak kontratua eteteko aukera izango du.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da izaera sozialeko zenbait eskakizun ezartzea, zeinak, ezarri beharreko edo ezar litezkeen beste eskakizun batzuk gorabehera, nahitaez sartu beharrekoak izanen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoa osatzen duten entitateen kontratazio organoek egiten dituzten kontratazio-prozesuetan.”

2. artikulua. Aplikazio-esparru objektiboa.

Foru lege honetako xedapenak aplikatuko zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoaren entitateek egiten dituzten kontratazio guztiei, zeinak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 3. artikuluan baitaude araututa.

3. artikulua. Aldatu egin da Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua. Honako testua izanen du:

“49. artikulua. Kontratuak gauzatzeari buruzko eskakizun sozialak edo ingurumenaren arlokoak.

1. Administrazio klausula partikularren agirietan, betekizun sozial edo ingurumenaren arloko zehatzak ezarri ahalko dira, kontratua exekutatzeke moduari buruzkoak eta haren ezaugarrien arabera egokituak. Esate baterako, ontzi, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabiltzea; produktu edo zerbitzuen efizientzia energetikoa; produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea; kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea; luzaroko langabeei lana eman beharra; gazte eta langabeentzako prestakuntza jarduerak kontratistaren kargura antolatzea; sexuen arteko berdintasuna sustatzeko edo etorkinak integratzeko neurriak hartzea; legez ezarritako kopurua baino pertsona ezgaitu gehiago kontratatu behar izatea kontratua exekutatzeke; eta antzeko beste batzuk.

2. Betekizun horiek ezin izanen dira ezkutuko zehaztapen tekniko, aukeraketa irizpide edo esleipen irizpideak izan, eta, halaber, ezin izanen dute bereizkeriarik eragin, eta, horrela, kontratua burutzeko gaitasun teknikoa duen edozein lizitatzailerik bete ahal izateko modukoak izanen dira.

3. Nolanahi ere, klausula administratiboan agiritan, honakoei buruzko ohartarazpenak jaso beharko dira:

a) Kontratu honek errespetatu egin behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta lan-osasun eta -segurtasunari buruzko xedapenak (lege, araudi eta hitzarmenetakoak direla ere), batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko

esparru txikiena duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

b) Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du esleipen-hartzaileak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko hitzarmen sektorialaren aplikaziotik heldu den kostuari; jasotako soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere izan hitzarmeneko orduko prezioak gehi gizarte segurantzako kostuak baino txikiagoak.

c) Zerbitzuen emakidaren kasuan, kontratazioa, kasua bada, gutxienik hiru hileko antzinasuna duten langile guztien subrogazioa bermatzeko baldintzapean egingen da, beste enpresa batekoak izanagatik ere, kontratuko jardura egiten ari badira; enpresaburu berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta gertzen da, pentsio konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta oro har, gizarte-babes osagarriari buruz bere gain hartu ahal izan dituen betebeharrak dagokienez. Kontratua esleitu zaion enpresak kontratuaren zati bat besteren esku uzteko aukera dagoela aurreikusiz gero, bigarren enpresa horrek jardura hori egiten zuten langile guztiak subrogatu beharra daukala jasoko da; enpresaburu berria aurrekoaren eskubide eta betebeharrak laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta gertzen da, barne hartuta pentsio-konpromisoak –horien araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera– eta, oro har, gizarte-babes osagarriaren arloan hartutako betebeharrak guztiak.

4. Baldin eta 1. eta 2. idatz-zatietan jasotako eskakizunak ez badira betetzen, kontratazio-organok ondokoak izanen ditu aukeran:

a) Kontratua suntsiaraztea, kontratistaren ezbetetze erruzkoagatik, eta kontratista bi urterako ezgaitzea foru lege honen babesean egiten den edozein lizitazio deialditan parte hartzeko.

b) Kontratuaren gauzatzeari eustea, kontratuaren prezioaren % 20ko zigorra ezarrita.

5. Kontratistak ez baditu betetzen artikuluko honetako 3. idatz-zatian ezarritakoaren ondorioz kontratazio-agirietan sartzen diren klausula sozialak, kontratazio-organok ondokoak izanen ditu aukeran:

a) Kontratua suntsiaraztea eta kontratista 5 urterako ezgaitzea foru lege honen pean gelditzen diren entitateekin kontratatzeke.

b) Kontratua kontratista berak exekutatzen jarrai dezala, baina kontratuaren prezioaren % 35eko zigorra ezarrita.

Kontratua suntsiaraztea erabakitzen badu, kasuan kasuko administrazioak kontratuaren falta den zatia lizitazioan bigarren gelditu zen enpresari esleitzen ahalko dio, edo, enpresa horrek uko egiten badio, sailkapenean hurrengoak izan zirenei, sailkapen-ordenan.”

4. artikulua. Esleipenen gardentasun publiko eta instituzionala.

Lizitazio eta kontratazio prozesuetako klausula administratiboen agirietan adierazpen bat jasoko da, zeinaren bidez lehiakideek beren borondatez

onartuko duten gardentasun instituzionala emanen dietela lizitazio-, esleipen- eta exekuzio-prozesutik heldutako datu guztiei, prozesu hori amaitu arteko datu guztiei alegia.

Xedapen iragankorra. Foru lege hau ez da aplikatuko dagoeneko esleitura dauden kontratazioetan, ezta bera indarrean sartu aurretik tramitatu ari zirenetan ere.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunen hartuko du indarra.

Foru Legea, lan elkartuko mikrokooperatibei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, lan elkartuko mikrokooperatibei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, lan elkartuko mikrokooperatibei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

2013-2015 urteetarako Nafarroako Ekonomia Sozialeko Plan Estrategikoak, Moderna Planaren esparrukoak, helburu du enplegua gehitzen laguntzea, ekonomia sozialeko enpresa berriak sortuz.

Foru lege honen xedea da mikroenpresen eraketa sustatu eta bultzatzea, lan elkartuko kooperatiba-elkarteen eredupean, Nafarroaren hazkunde-rako eta enpresa-ehunduraren etorkizuneko garapenerako oinarri gisa, kalitatezko enplegua sortzeko eredu bat baita.

Planteamendu hau Europar Batasunetik bultzatu izan diren orientabide eta politikekin bat dator, zeinek elkarren osagarri diren bi beharizani erantzuten baitiote. Batetik, enpresa txikien sorrera bultzatzea, bereziki hamar langile bitarteko mikro-enpresak, eta horretarako sozietate-formula errazak ezartzea, enpresa txikien errealitateari hobeki egokituak.

Bestetik, orokorrean, araudiak ez du egiten enpresen tamainaren araberrako tratamendu-desberdintasunik, eta, horren ondorioz, arauak ezartzen dituen betekizunak betetzea zail egin dakieke enpresa txikienei. Mikroenpresen kasuan, beren izaera eta inguruabarrak direla eta, izaera administratiboko betekizunak ez dira batera lagungarri gertatzen; alderantziz, oztopo handi bat izaten dira haien sorrerarako.

Azken urte hauetan, Europar Batasunak eta Estatuak merkataritza-alorreko lege-aldaketa batzuk egin dituzte, enpresa-ekimen berriak abian jartzeko bete beharreko baldintzak sinpletze aldera, betiere bilatuz enpresa txiki eta ertainen eraketan eragin berezia duten aldaketak, zeren eta halako enpresak funtsezkoak baitira enplegu-sorrerarako.

1. artikulua. Kontzeptua.

1. Mikrokooperatiba lehen graduko kooperatiba-sozietatea da, lan elkartukoa, eta bere araubide juridikoa foru lege honek ezartzen du, kooperatiba-sozietateen barruko espezialitate gisa.

2. Mikrokooperatiba bat eratzeko, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeari jarraituz eraturako kooperatiba-sozietate baten estatutu sozialak foru lege honetara egokitzeko, edo kooperatiba ez den sozietate bat mikrokooperatiba bihurtzeko, sustatzaileek edo kasuko organo sozialak sozietateari mikrokooperatibaren nolakotasuna espresuki egotzi beharko diote.

3. Mikrokooperatiba iraupen mugagabeko bi langilek, gutxienez, eta hamarrek, gehienez, osatuko dute, lanaldi osoan nahiz partzialean.

4. Mikrokooperatibak foru lege honetan xedatuaz arautuko dira, eta, osagarri gisa, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeaz.

2. artikulua. Eraketa.

1. Mikrokooperatiba eratzeko edo beste entitate bat mikrokooperatiba bihurtzeko nahiz horretara egokitzeko, eskritura publikoa egin eta sozietatea Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da. Inskripzio horren indarrez hartuko du nortasun juridikoa eratu berriko mikrokooperatibak.

2. Kooperatiben arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuko departamentuak mikrokooperatibentzako estatutu sozialen eredu orientagarri bat onetsiko du, eta interesdunen eskura jarriko du mikrokooperatibak eratzten dituztenean. Eredu horrek jasoko ditu, gobernu-, kudeaketa- eta ordezkartza-organoa taxutzeari dagokionez, foru lege honek ezartzen dituen hautabide ezberdinak.

3. Estatutu sozialen eredu orientagarria aldaketarik sartu gabe erabiltzeak berarekin ekarriko du estatutu horiei buruzko alde aurretiko kalifikazioaren izapidetik salbuetsita egotea. Kasu horretan, eratze-eskritura kalifikatzeko eta inskribatzeko epea ez da izanen berrogeita zortzi ordutik gorakoa.

4. Entitate horien izenean ezinbestean agertuko da “Mikrosozietate Kooperatibo” adierazpena edo horren laburdura den “Mikrosoz. Koop.”

3. artikulua. Besteren konturako langileak eta iraupen mugatuko bazkide-langileak kontratatzeko mugak.

1. Mikrokooperatibek, beren nortasun juridikoa hartu eta zazpi urteko gehieneko epe batez, iraupen mugatuko bazkide-langileak izan ahalko dituzte, baina halakoen kopurua ezin izanen da izan iraupen mugagabeko langileena –lanaldi osokoak nahiz partzialekoak– baino handiagoa.

2. Zazpi urteko epe horretan berean, mikrokooperatiban besteren konturako kontratu mugagabea duten langileak ez dira bost baino gehiago izanen, salbu eta enpresaren behar objektiboengatik kopuru hori gainditu behar bada, gehienez ere hiru hila-betez. Epe hori gainditu ahal izateko, baimen zioduna eskatu beharko zaio, epe mugatu baterako, Nafarroako Gobernuko kooperatiben arloko departamentu eskudunari, eta azken horrek hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko du eskaria; administrazio-isiltasunaren kasuan, baimena eman egin dela ulertuko da.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatzen den zazpi urteko epe hori iraganda, Nafarroako Kooperatibei

buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeak ezarritakoak izanen dira mikrokooperatibak besteren konturako kontratu mugagabedun langileak eta iraupen mugatuko bazkide-langileak kontratatzeko mugak.

4. Aurreko idatz-zatietan jasotako kasuetan, behin beren nortasun juridikoa hartu zutenetik zazpigarren urtea iragan denean, mikrokooperatibek kooperatiben arloko Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunean frogatu beharko dute Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeak arlo honi buruz ezarritako betekizunak betetzen dituztela.

4. artikulua. Bazkideen ekarpenak zedarritzea.

Bi bazkidek osatutako mikrokooperatiben kasuan, bazkide bakoitzaren ekarpenak % 50ekoak izanen dira.

Mikrokooperatibek hasierako derrigorrezko ekarpenak exiji diezazkiekete besteren konturako langileei, sozietatean sartu ahal izateko iraupen mugagabeko bazkide-langile bezala edo iraupen mugatuko bazkide bezala, eta ekarpen horiek, bazkide mota bakoitzaren kasuan, izanen dira, gehienez ere, sozietatera azken sartutako bazkide-langileak guztira eginiko derrigorrezko ekarpenen adinakoak, dagokion bezala eguneratuta. Edonola ere, eguneratze hori ezin izanen da handiagoa izan ekarpenak egin zirenetik Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Nafarroako KPlak aplikatuzetik ateratzen dena baino.

5. artikulua. Organo sozialak.

1. Hauek izanen dira mikrokooperatibaren organo sozialak: kooperatibaren batzar orokorra eta gobernu-, kudeaketa- eta ordezkartza-organoa, zeina pertsona bakarrekoa izan baitaiteke –administratzaile bakarrekoa–, pertsona anitzekoa –administrari solidario edo mankomunatuak dituen– edo kolegiatua –zuzendaritza-kontseilua duena–.

2. Batzar orokorraren araubidea, foru lege honetan xedatuta ez dagoen orotan, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legean ezarritakoa da.

3. Gobernu-, kudeaketa- eta ordezkartza-organoa mikrokooperatibako bazkide-langileek osatuko dute beti, eta foru lege honetan eta Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legean ezarritakoaren arabera arautuko da.

4. Mikrokooperatiben gobernu-, kudeaketa- eta ordezkartza-organoa, zuzendaritza-kontseiluaren modalitatea hautatzen denean, gutxienez ere bi

pertsonak osatuko dute, eta kasu horretan lehendakari eta idazkari karguak izanen dituzte.

5. Karguek bost urte iraunen dute, eta epe hori iraganda, haietarako pertsona berak hautatuko dira, edo beste izendapen bat eginen da.

6. Zuzendaritza-kontseiluaren erabakiak modu baliodunean emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira, halakotzat kontatu gabe bilkurara joan diren kontseilarien abstentzioak. Lehendakari kargua duenaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

7. Artikulu honetako laugarren idatz-zatian jasotako kasua gertatzen bada, idazkariak aukera izanen du batzar orokorra biltzeko deialdia egiteko, baldin eta lehendakariak ez badu deialdia egin bazkide batzuek (gutxienez, boto guztien % 20 ordezkatzaren dutenak) egindako deialdi-eskaera jaso ondorengo hogeitun egunetan. Nolanahi, horrek ez du ezertan kaltetzen lehendakariaren kontra erantzukizun-akzioaz baliatzea.

8. Mikrokooperatibako bazkide guztiak gobernu-, kudeaketa- eta ordezkaritza-organoko kide direnean, ez da kontu-hartzailezik izendatu behar.

6. artikulua. Estatutu sozialak egokitzea.

1. Mikrokooperatibak iraupen mugagabeko langile-bazkideen gehieneko kopurua gainditzen badu sei hilabete baino gehiagoz, estatutu sozialak egokitu beharko ditu Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legean ezarritakora.

2. Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen babesean sortutako lan elkartuko kooperatiba-sozietateren batek mikrokooperatibaren forma hartu nahi badu, eta arau honetan horretarako finkatu diren betekizunak betetzen baditu, bere estatutuak lege honen xedapenetara egokitu beharko ditu.

Lehen xedapen gehigarria. Agiri elektronikoko bateratua.

Prozedura eta tresna telematikoen garapenak hori bideratzen duenean, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu agiri elektronikoko bateratu batek aukera eman dezan mikrokooperatibak eratzeko, abian jartzeko eta horiei aholkua emateko; halaber, hitzarmenak eginen dira horien funtzionamendu hobea lortzen lagun dezaketen erakunde, administrazio eta sozietateekin.

Bigarren xedapen gehigarria. Ekintzaileen arretarako guneak.

Kooperatiben arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuak departamentuak Nafarroako mikrokooperatibak sortzeko ekintzaileen arretarako gune izaera emanen die Nafarroako Foru Komunitateko jarduketa-esparrua duten irabazi asmorik gabeko entitateei, eta gune horietan arreta ematen egonen diren pertsonen ezaugarri teknikoak eta lanbide-profila finkatuko ditu.

Lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikagarria izan arte, Nafarroako mikrokooperatibak sortzeko ekintzaileen arretarako guneek izaera hori aitortzen dien ebazpen administratiboan esleitzen zaizkien jarduerak eginen dituzte.

Doakoak izanen dira Nafarroako mikrokooperatibak sortzeko ekintzaileen arretarako guneen zerbitzu guztiak.

Hirugarren xedapen gehigarria. Araubide fiskala.

Mikrokooperatibei aplikatzekoa izanen zaie Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legean lan elkartuko kooperatibentzat ezarritako araubidea, eta 3. artikuluan aipatzen den zazpi urteko epean aplikatuko dira artikuluko horren 2. idatz-zatian aurreikusitako mugak, 9/1994 Foru Legearen 7. artikuluko 3. idatz-zatian adierazitakoen orde.

Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina ematekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Foru Lege proposamena. Proposamen hori

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, amatasunaren babesa ezarri eta arautzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako foru Lege proposamena, amatasunaren babesa ezarri eta arautzen duena.

Proposamen hori 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerapausoak eman ditzan Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa ereduak ezartzeari dagokionez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrerapausoak eman ditzan Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa ereduak ezartzeari dagokionez”. Erabakia heldu da Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu zuen mozio batetik, zeina 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urratsak eman ditzan Nafarroako merkataritzako hiri-eremuetan baterako kudeaketa-ereduak ezartzeari dagokionez, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, legez eraturako merkataritza-elkarteekin eta Nafarroako Merkataritza Federazioarekin lankidetzan, Business Improvement Districts izenekoan eredu oinarrituta, pizgarri-programak garatuz eta horretarako beharrezkoak diren arau-aldaketak eginez”

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Gobernuaren Ordezkaritzak daraman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Gobernuaren Ordezkaritzak daraman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Gobernuaren Ordezkaritzak daraman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die edozein protesta baketsutan parte hartzeagatik zehatutako pertsona eta kolektibo guztiei.

3. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiaren doktrinari jarraikiz, zeinaren bidez jotzen baita gisa horretako zehapenek giza eskubideak urratzen dituztela, Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren Ordezkaritzari exijitzen dio errepre-sio-politika hori amaiaraz dezan eta aipatutako arrazoi horiengatik abiarazitako zehapen guztiak baliogabetu ditzan”.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile publikoekin bete dezan mendekotasunagatiko prestazioak eskatzen dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa baloratzeko zerbitzu pribatizatua.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2015eko urtarrilaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile publikoekin bete dezan mendekotasunagatiko prestazioak eskatzen dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa baloratzeko zerbitzu pribatizatua”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak berehala kontrata dezan behar adina langile zerbitzu publikoen funtzionamendu zuzenerako beharrezkoak diren lanak egiteko eta, zehazkiago, mendetasun-prestazioen eskatzaileen gaitasun ekonomikoa baloratzeko zerbitzua emateko”.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan diruz lagundu ikasleak sexuaren arabera ikasgela desberdinetan bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan ematen diren irakaskuntzak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan diruz lagundu ikasleak sexuaren arabera ikasgela desberdinetan bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan ematen diren irakaskuntzak".

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko urriaren 24ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiazko parte-hartze publikoko prozesu bat abiaraz dezan, Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuaren aldaketa egiterakoan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiazko parte-hartze publikoko prozesu bat abiaraz dezan, Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuaren aldaketa egiterakoan".

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

3/2014 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 190/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita abenduaren 23ko 3/2014 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 190/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea abenduaren 23ko 3/2014 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 190/1992 Foru Legea aldatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**3/2014 Legegintzako Foru Dekretua,
abenduaren 23koa, Tributu
Harmonizazioari buruzkoa, Balio
Erantsiaren gaineko Zergari buruzko
abenduaren 30eko 190/1992 Foru
Legea aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarritzko prin-

tzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitorpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behar izan badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena eman zaie.

Azaroaren 27ko 28/2014 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea, Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskalaren alderdi fiskalak aldatzeari buruzko ekainaren 7ko 20/1991 Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea, eta ingurumen arloko fiskalitate neurri batzuk eta tributu eta finantza arloetako beste zenbait neurri ezartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legea aldatu zituen; izan ere, aldaketa batzuk egin zizkion BEZaren gaineko araudiari, Europar Batasuneko araudiari are gehiago egokitzeko, esparru juridiko seguruagoa ezartzen ahalegintzeko, iruzur fiskalaren kontrako borroka indartzeko eta, azkenik, zenbait eragiketaren esparru fiskala malgutu eta hobetzeko.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu denez, beharrezkoa da Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau ematea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren

30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko, zerga horri dagokionez, Foru Komunitatean aplika daitezen Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak.

Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek, aurretik esandakoarekin bat, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu batzuk aldatzen ditu.

Bestetik, beharrezkoa da foru araua BEZari buruzko zuzentaraura egokitzea, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren zenbait epai bete behar baitira, gure barne araudian eragin zuzena dutela ikusirik, eta Europako Batzordeak 2012ko urriaren 24an eman zuen irizpen arrazoitua moldatzea. Irizpen horren xedea fede-emaile publikoek salbuetsitako finantza eragiketekin lotuta emandako zerbitzuen salbuespena da.

Hirugarren aldaketa multzoa iruzurraren kontrako borrokari dagokio: "subjektu pasiboaren inbertsio araua" izenekoa aplikatzeko beste kasu batzuk ezartzea, edo aduanei buruzko araudiaren arloarekin lotura duten aldaketak.

Azkenik, zenbait muga edo betebeharrak malgutzen dituzten arauen multzo bat bildu da dekretu honetan, hala nola, enpresa txikia edo ertaina duten enpresaburu edo profesionalen kasuetan zerga-oinarria aldatzeko epea luzatzea, edo kutxaririzpidearen araubide bereziari atxikitako enpresaburuen kasuetan.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2013ko urtarrilaren 17an emandako epaian, "osasun produktuei buruzko epaia" izenez ezaguna den horretan, ezarririk dago zergaren araua aldatu beharko dela osasun produktuei aplikatu beharreko tasei dagokienez.

Zerga tasaren aldaketak eragin die, gehienbat, osasun arloko ekipo, tresneria, produktu eta gainerrako lanabesei, erabilera medikoa izan eta ospitaleetan erabiltzen direnei, oro har, ehuneko 10ekoa izatetik ehuneko 21ekoa izatera pasatu delako, eta ehuneko 10ekoa mantendu da, soilik, produktu jakin batzuetarako, alegia, haien ezaugarri objektiboengatik urritasun fisikoak, mentalak, adimenekoak edo zentzumenetakoak dituztenen eta ez beste inoren erabilera pertsonalerako, urritasun horiek arindu edo tratatzeko diseinaturik dauden produktuetarako. Haien zerrenda erantsi da, zergari buruzko foru legearen eranskinari atal berri bat gehituz, bederatzigarrena.

Eranskineko bederatzigarren atal berri horretako zerrendan ageri diren produktu batzuk desgaitasuna duten pertsonentzat dira soilik, esate bate-

rako, ikusmeneko eta entzumeneko urritasuna dutenen eta ez beste inoren erabilera pertsonalerako diseinatutako aparatuak; eta beste batzuk, erabilera mistoa izan dezaketenak, baina desgaitasuna dutenentzat erabilera argi eta objektiboa izanik.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-189/11 aferan 2013ko irailaren 26an emandako epaiak, bidaia agentzien araubide bereziari buruzkoak, berarekin dakar araubide berezi honen erregulazioa aldatu beharra.

Aipatutako epaiak nahitaezko egin dituen aldaketez gain, zergaren araubide orokorra aplikatzeko aukera ere erantsi da, eragiketaz eragiketa egin beharrekoa, baldin eta eragiketa horien hartzailea den enpresaburuak edo profesionalak eskubidea badu, neurriren batean, jasandako zerga-kuoten kenkarirako edo itzulketarako; horretarako, kontuan hartu da kide diren beste estatu batzuetan dagoen araubide bereziaren erregulazioa, zehazki araubidearen hartzailea enpresaburu edo profesional bat denean.

Kontraprestazioa diruzkoa ez duten eragiketen balorazio araua ere aldatu da, eta aurrerantzean alderdiek adostutako balioa izanen da, dirutan adierazia, eta hondarreko irizpidea autokontsumoaren balorazio arauak izanen dira.

Beste aldaketa batzuk zergaren doikuntza edo hobekuntza teknikoaren arlokoak dira. Hartara:

- Enpresa ondarea edo ondare profesionala osorik edo zati batean eskualdatzearen ondorio diren zerga loturarik gabeko eragiketen erregulazioa argitu egin da, eta, horretarako Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia sartu da, izan enpresa baten eskualdaketa, izan haren zati batena.

- Ente publikoek egindako eragiketek zerga loturarik ez izateari dagokionez, ezartzen da, bategatik, kudeaketa gomendioez baliatuz emandako zerbitzuak ez daudela lotuta, eta, bestetik, lege maila ematen zaio "ente tekniko-juridikoak" izeneko doktrina administratiboari.

Zerga loturarik ez izateak berarekin dakar lotu gabeko eragiketak egiteko erabiliko diren ondasun eta zerbitzuak eskuratzeagatik jasaten diren kuotak ez direla kengarriak izanen; hori dela eta, aldi berean zergaren menpe dauden eragiketak eta ez daudenak egiten dituzten ente publiko "bikoitzak" deitzen diren horien erregulazioan egindako aldaketari dagokionez argitzen da testuan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia aplikatuz, bi eragiketa motak aldi batera egiteko erabiltzen diren ondasun eta zerbitzuak eskura-

tzeagatik jasandako kuoten kenkaria zentzuzko irizpide baten arabera eginen dela.

– “Hezkuntz salbuespena” izeneko aplikatuko da, halaber, ikastetxean eskola-orduen artean ematen zaizkien arreta zerbitzuetan, bai eskolako jantokian egoteko garaian bai eskola ordutegitik kanpo haurtzaindegi zerbitzuan, eta, ondorio horietarako, ikastetxeak ematen dituen zerbitzu horiei zergari dagokionez ematen zaien tratamendua parekatu eginen da, baliabide berekiekin egin edo besteren baliabideekin egin.

– Konpentsazio Batzordearen eta lurren jabeen artean egiten diren lursailen entrega eta esleipenetan aplikatzen zen salbuespena desagertzen da, batzorde horiek urbanizazio prozesuetan izaten zuten esku-hartzeari –izaera fiduziarioarekin jardun edo gabe jardun– zergan tratamendu desberdina emateak distortsioa sortzen zuelako.

– Higiezinaren gaineko salbuespenei uko egiteko esparru objektiboa handitu egiten da, ukoa ez baita lotzen enpresaburu edo profesional eskuratzailak jasandako zergaren kenkari osoa egiteko eskubidea izan beharrezkin higiezina erostean aurreikusten zuen xedearen arabera, baina exijitzen da enpresaburuak eskubidea izatea jasandako zergaren kenkari osoa edo zati batekoa egiteko erosketa egitean edo erositako higiezinarako aurreikusitako xedearen arabera.

– Zerga-oinarria aldatzeko prozedura malgutu egin da, eta horrela, aldaketa egiteko epea, konkurtsoan dagoen zordunaren kasuan, hilabetekoa izatetik 3 hilabetekoa izatera pasatzen da; kreditu kobraezinen kasuan, enpresa txikitzat hartzen diren enpresaburuek 6 hilabeteko epea iraganik aldatzen ahalko dute zerga-oinarria, hori baitzen orain arte eskatzen zen epea, edo gainerako enpresaburuei eskatzen zaien urtebeteko epe orokorra erabil dezakete.

– Hainbanaketa berezia aplikatzeko esparrua handitu egin da, urte naturalean kenkaria izan dezaketen kuoten zenbatekoari dagokionez onar daitekeen aldea ehuneko 20koa izatetik ehuneko 10ekoa izatera pasatzen baita, hainbanaketa orokorra aplikatuta ateratzen diren kuotak hainbanaketa berezia aplikatuta ateratzen direnekin konparatuta.

– Entitate multzoaren araubide berezia aldatzen da multzoko entitateentzako hiru lotura mailen eskakizuna eransteko: ekonomikoa, finantza arlokoa eta antolaketakoa, eta, horrela, BEZaren Zuzentarauaren testuarekin bat etorriko da. Finantza arloko loturak entitatearen kontrol eraginkorra eskatzen du, kapitalean edo boto eskubideetan ehuneko 50etik gorako partaidetza izanez. Aurre-

koa gorabehera, aldi baterako araubide bat ezarri da, egun dauden multzoei aukera emanen diena 2015ean zehar betebeharrak berrietara egokituz joateko.

Adierazten da araubide berezi honetan egindako eragiketak ezin direla kontuan hartu guztientzako hainbanaketa kalkulatzeko jarduerak sektore berezitu batean baino gehiagotan betetzen dituzten enpresaburuen kasuan, entitate multzoaren araubide berezia gorabehera.

– Balio Erantsiaren gaineko Zergan inportazioagatik ordaintzen diren kuoten arloan, aukera ematen da zenbait operadorek zergaren ordainketa atzeratzeko aitorpen-likidazioa aurkezteko unera, kuota horiek horretan sartuz. Aukera hori erregelamenduz garatuko dela ere ezartzen da.

Azkenik, aldaketa batzuen xedea da iruzurraren kontrako borrokan laguntzea, eta, horretarako, “subjektu pasiboaren inbertsio-araua” aplikatzeko kasuei produktu jakin batzuen entregarena gehitu zaie, bereziki, sakelako telefonoak, bideojokoen kontsolak, ordenagailu eramangarriak eta tableta digitalak, berriz salduko dituen enpresaburu bati egindako entregetan edo 10.000 eurotik gorakotan, bai eta zilarra, platinoa eta paladioa ere.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak proposaturik, eta 2014ko abenduaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu:

Bat. 7. artikulua, 1., 4. eta 8. idatz-zatiak.

“1.a Subjektu pasiboaren enpresa edo lanbide ondarearen parte diren elementu ukigarrien edo, kasu bada, ukiezin multzo baten eskualdaketa, baldin eta berez enpresa edo lanbide jarduera bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute edo osatzeko gauza badira eskualdatzailearentzat, foru lege honen 4.3 artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion tributuen eta beste tributu batzuen esparruan eskualdaketa horri aplikagarri zaion zerga araubidea zein den gorabehera.

Ondoko eskualdaketa hauek aurreko lerroaldean aipatu zerga loturarik ezaren arautik kanpo gelditzen dira:

a) Ondasun edo eskubideen lagapen hutsa.

b) Enpresaburuaren edo profesionalaren izaera dutenek egindakoak, soilik, foru lege honen 5.1.c) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eskualdaketa horien helburua ondasunen lagapen hutsa denean.

c) Enpresaburuaren edo profesionalaren izaera, bakar-bakarrik, foru lege honen 5.1.d) artikuluan aipatutako eragiketak noizbehinka egiteagatik dutenek egiten dituzten eskualdaketak.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, berdin da eskuratzaileraren aritzea eskuratutako elementuak atxikita zeuden jarduera berean edo beste batean, betiere eskuratzailerak frogatzen badu enpresa edo lanbide jarduera bati atxikita mantenduko dituela.

Zenbaki honetan xedatutakoari loturik, ondasun edo eskubideen eskualdaketa haien lagapen hustzat hartuko da, horiekin batera eskualdatzen ez bada unitate ekonomiko autonomotzat har daitekeen antolamendu egitura bat, bere baitan produkzio-faktoreak (hots, materialak eta giza baliabideak, edo bietako bat) dituen.

Gero batean, eskualdatutako ondasunak eta eskubideak edo horien parte bat desafektatzen badira zerga loturarik ez izatea (zenbaki honetan aurreikusia) dakarten enpresa edo lanbide jardueretik, desfektazio hori zergari lotua egonen da foru lege honetan kasuan-kasuan ezarrita dagoen bezala.

Zenbaki honetan ezarritako zerga loturarik ezaren arauaz baliatzen diren eskualdaketetako ondasun eta eskubideen eskuratzailerak eskualdatzaileen tokian subrogatuko dira eskubide eta ondasun horiei dagokienez, foru lege honen 17.1.12 artikuluan eta 38. artikulutik 60.era bitartean dauden arauen aplikazioari begira”

“4.a Inprimakiak edo publizitate arloko gauzak ematea kontraprestaziorik gabe.

Publizitateko inprimakiek agerian idatzirik izan beharko dute ondasunak ekoizti edo merkaturatzen dituen edo zenbait zerbitzu ematen dituen enpresaburuaren edo profesionalaren izena.

Foru lege honen ondorioetarako, publizitatearen arloko gauzak dira berezko balio komertzialik ez dutenak eta publizitateko aipamen ezabaezina ezarria dutenak.

Idatz-zati honetan xedatutakoari salbuespen gisa, zergaren menpe egonen dira publizitateko objektuen entregak, hartzaile bati urte naturalean emandako hornigaien kostua, osotara, 200 eurotik

gorakoa bada, non ez zaizkien ematen beste subjektu pasibo batzuei berriz dohainik banatzeko”

“8.a Ondasun entregak eta zerbitzu emateak, administrazio publikoek zuzenean egindakoak kontraprestaziorik gabe, edo zergari lotutako kontraprestazioarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek administrazio publikoak dira:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoetako administrazioak eta Toki Administrazioa osatzen duten entitateak.

b) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta zerbitzu komunak.

c) Erakunde autonomoak, unibertsitate publikoak eta estatu agentziak.

d) Nortasun juridikoa duen zuzenbide publiko edozein entitate, aurrekoen menpekoa, sektore edo jarduera jakin baten gainean kanpotik kontrolatzeko edo erregulatzeko eginkizunak esleituta baditu, Legeak aitortzen dion autonomia berezi bat edo independentzia funtzionala duela.

Estatuko entitate publiko enpresarialak eta autonomia erkidegoen eta toki entitateen menpeko antzeko erakundeak ez dira administrazio publikotzat joko.

Sektore publikoko ente, erakunde eta entitateek kudeaketa gomendioen bidez emandako zerbitzuak ez dira zergari loturik egonen, haiek, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 4.1.n) eta 24.6 artikuluetan eta Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 6.1.a) eta 8. artikuluetan ezarritakoaren arabera, administrazio publiko agintzailearen eta haren menpeko botere esleipen-emateen berezko baliabide instrumentala eta zerbitzu teknikoa badira.

Orobat, sektore publikoko edozein ente, erakunde edo entitatek emandako zerbitzuak ez dira zergari loturik egonen, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 3.1 artikuluan eta Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 2.1 artikuluan aipatzen den moduan, zerbitzu horiek haien nagusi diren administrazio publikoari edo osorik horien menpekoa den beste bati emandakoak badira, administrazio publiko horiek haien titulartasun osoa dute.

Betiere, administrazioek eta sektore publikoko ente, erakunde eta entitateen ondasun entregak eta zerbitzu emateak zergari lotuta egonen dira,

ondoren aipatzen diren jarduerak burutzean eginenez gero:

a') Telekomunikazioak.

b') Ura, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia motak banatzea.

c') Pertsona eta ondasunen garraioa.

d') Portu eta aireportuetako zerbitzuak eta trenbideko azpiegituren ustiapena; hurrengo 9. idatzatian zerga loturarik ez izatetik salbuesitako emakida eta baimenak ere sartzen dira.

e') Produktuak lortu, fabrikatu edo eraldatzea, gero eskualdatzeko.

f') Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen gaineko esku-hartzea, produktu horien merkata erregulatzera bideratua.

g') Feria eta erakusketa komertzialak ustiatzea.

h') Biltegian eta gordailuan uztea.

i') Publizitateko bulego komertzialen jarduerak.

j') Enpresa, ekonomato, kooperatiba eta antzeko establezimenduetako kantina eta jantokiak ustiatzea.

k') Bidaia agentziak.

l') Irrati eta telebistako ente publikoen merkataritzako jarduerak, instalazioen erabilera lagatzeari buruzkoak barne. Ondorio horietarako, merkataritzako jardueratzat hartzen dira sektore publikotik heldu ez diren publizitateko diru-sarrerak sortzen dituztenak, edo sortzen ahal dituztenak.

m') Hiltegikoak”

Bi. 8.2. artikuluar 8. zenbakia gehitzea.

“8.a Baloreen eskualdaketak, haiek izateagatik, izatez edo zuzenbidez, higiezin baten edo haren zati baten jabetza, erabilera edo aprobe-txamendua bermatzen duenean, Foru Lege honen 17.1.14.k) artikuluan aurreikusitako kasuetan.”

Hiru. 9.1.c) artikulua, c') azpiletra.

“c') Finantza-errentamenduko eragiketak, Kreditu Entitateen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituenak”

Lau. 17.1. artikulua. 11. zenbakia eta 14. zenbakiko ñ) letra kendu dira.

Bost. 17.1 artikulua, 6., 10.a), 19. eta 26.b) idatz-zatiak.

“6.a Haur eta gazteen hezkuntza, haurren zaintza eta jagoletza, haurrei ikastetxeetan eskola

orduen artean, eskola jantokian, edo eskola ordutik kanpoko haurtzaindegiaren zerbitzuko geletan arreta ematea barne, eskolako, unibertsitateko eta graduatu-ondokoentzako irakaskuntza, hizkuntzen irakaskuntza eta lanbide prestakuntza eta birziklapena, zuzenbide publikoko entitateek eginak, edo jarduera horietan aritzeko baimenduta dauden entitate pribatuek eginak.

Aurreko lerroaldean aipatu zerbitzuekin zuzenean loturik dauden zerbitzu emateentzat eta ondasun entregentzat ere izanen da salbuespena, haiek aipatu zerbitzuak ematen dituzten hezkuntzako enpresek berek, beren baliabideekin edo bestereneekin, burutzen dituztenean.

Salbuespenean ez dira eragiketa hauek sartuko:

a) Kirola egiteari lotutako zerbitzuak, ikastetxeek ez beste enpresa batzuek emandakoak.

Ez dira inoiz letra honetan sartuko ikastetxeei lotutako ikasleen gurasoen elkarteek emandako zerbitzuak.

b) Ikasle-egoitza nagusiek edo txikiek eta ikasleen egoitzek ostatu eta elikadura arloan emandakoak.

c) Ibilgailu gidarien eskolek egindakoak, A eta B motetako errepideko ibilgailuen gidabaimenei buruzkoak eta kirol edo aisiako itsasontzi edo aireontziak gidatzeko beharrezko titulu, lizentzia edo baimenei buruzkoak.

d) Kostu bidez egindako ondasun entregak”

“10.a) Lur urbanizatuenak edo urbanizatzen ari direnenak, parke eta lorategi publikoetarako edo erabilera publikoko bide-azaleretarako baino ez direnak salbu.”

“19.a Zerbitzu prestazioak eta haien osagarri diren ondasun entregak, baldintza hauek betetzen badituzte: legez onarturiko erakunde edo entitateek, irabazteko asmorik ez dutenek eta soil-soilik izaera politiko, sindikal, erlijioso, patriotiko, filantropiko edo zibikoko xedeak dituztenek, beraien kideei zuzenean eginak, beren xede berariazkoak lortzeko, eta betiere erakunde edo entitate horiek jarduketara horien onuradunengandik estatutuetan finkaturiko kotizazioak ez beste kontraprestaziorik jasotzen ez badute.

Ulertuko da aurreko lerroaldean sarturik daudela lanbide elkargoak, ganbera ofizialak, enpresaburuen elkarteak eta atal honek aipatzen dituen erakunde edo entitateak biltzen dituzten federazioak.

Salbuespen hau aplikatzeko, ez du okertzerik eragin beharko lehia aldetik”

“26.b) Aurreko 10. eta 12. idatz-zatietan ezarritako salbuespenak bidezkoak direnean”

Sei. 17.2 artikulua.

“2. Subjektu pasiboak, erregelamenduz zehaztuko diren moduan eta baldintzetan, uko egiten ahalko die aurreko ataleko 10. eta 12. idatz-zatiei buruzko salbuespenei, eskuratzailerak bere enpresaburu edo lanbide jardueretan ari den subjektu pasiboa denean eta ondasuna eskuratzean jasaten duen zergaren kenkari osokoa edo partziala egiteko eskubidea esleitzen zaionean edo, aurrekoa bete gabe, zer destino izanen duten ikusita, eskuratutako ondasunak kenkarirako eskubidea ematen duten eragiketak egiteko erabili behar direnean, osorik edo hein batean”

Zazpi. 18.5. a) artikulua.

“a) Esportazio horiek egiten dituztenei, ondasunen hartzaileei edo haien aduanako ordezkariak egiten zaizkienean”

Zortzi. 21.1.3. f) artikulua.

“f) Aduanako ez beste gordailu erregimen bati lotutako ondasun inportazioak, araubide erkideko lurraldeko zerga arautzen duen Legearen 65. artikulua arabera salbuetsiak”

Bederatzi. 24.1.2. bis artikulua.

“2.a bis. Obrak egiten direnean, materialak ekarri zein ez, hartzaileak administrazio publikoak izanik, horiek jasotzen direnean, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 136. artikuluan ezarritakoarekin bat edo, kasu bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 235. artikuluan xedatutakoaren arabera, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen”

Hamar. 26.3. artikuluar 4. zenbakia gehitzea.

“4.a Eragiketen prezioari lotu gabeko dirulaguntzak; ez dira halakotzat hartuko hirugarren batek eragiketa horien kontraprestazio gisa ordaindutako zenbatekoak”

Hamaika. 27.1 artikulua.

“1. Kontraprestazioa dirua ez duten eragiketetan, bi aldean artean adostutako zenbatekoa, dirutan adierazia, hartuko da zerga-oinarritzat.

Besterik frogatu arte, hurrengo 3. eta 4. idatz-zatietan aurreikusitako arauak ezartzetik ateratzen diren zenbatekoak izanen dira zerga-oinarria.

Dena dela, kontraprestazioaren zati bat dirutan bada, dirutan ez den kontraprestazioaren zatiari dagokion zenbatekoari (dirutan adierazia eta aldeek adostua) dirutan emandako zatiaren zenbatekoa gehituta aterako da zerga-oinarria; betiere, emaitza horrek aurreko lerroaldeetan xedatutakoa aplikatetik ateratzen dena baino handiagoa izan beharko du”

Hamabi. 28.3 artikulua.

“3. Zerga-oinarria gutxitzen ahalko da zergari lotutako eragiketen hartzaileak kuota jasanaraziak ordaindu ez dituztenean eta, betiere, eragiketa sorrarazi ondoren konkurtso deklarazioaren autoa ematen bada. Aldaketa izanez gero, ezin izanen da egin Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 21. artikuluko 1. idatz-zatiko 5. zenbakian finkatu gehieneko epea bukatu eta bi hilabete iragan ondoren.

Konkurtsoari buruzko Legearen 176.1 artikuluko 1., 4. eta 5. idatz-zatietan adierazitako arrazoiengatik konkurtsoa amaitzea erabakitzen denean bakarrik, zerga-oinarria aldatu duen hartzekodunak berriro gorantz aldatu beharko du, bidezko kuota jasanarazten duen faktura zuzentzailea erregelamenduz zehaztuko den epean jaulkita”

Hamahiru. 28.4.A) 1.a

“1.a Jasanarazitako zerga sortu zenetik urtebete igarotzea haren ondoriozko kreditua osorik edo partez kobratu gabe.

Nolanahi ere, eperako edo prezio geroratuko eragiketen kasuan, urtebete igaro beharko da ordaindu gabeko epea edo epeak amaitzen direnetik zerga-oinarria proportzionalki murriztu ahal izateko. Ondorio horietarako, prezio geroratuko edo eperako eragiketatzat hartuko dira kontraprestazioa ordainketa bakarraren edo hurrenez hurrenekoen bidez beteko dela adostu diren horiek; betiere, jasanarazitako zerga sortzen denetik azken ordainketa edo ordainketa bakarra egiteko epea amaitzen den arte urtebete baino gehiago igaro bada.

Gutxitu gogo den zerga-oinarriari dagokion kreditu eskubidearen titularraren (enpresaburua edo profesionala) eragiketen bolumena, 66. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu, 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan ez denean aurreko urte naturalean, 1. baldintza honetan aipatu epea sei hilabetekoa edo urtebetekoa izaten ahalko da.

Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketen kasuan, baldintza hori betetzat joko da foru lege honen 108 terdecies artikuluan aipatzen den abenduaren 31ko mugaeguna apli-

katuta ateratzen den zergaren sorrarazpen egunean.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoa gorabehera, epekako eragiketak edo prezio geroratukoak direnean, 1. arau honetan aipatzen den sei hilabete edo urtebeteko epeak iragana egon beharko du epearen edo epeen mugaegunetik eragiketaren sorrarazpen eguna arte”

Hamalau. 28.4.B) artikulua.

“B) Aldaketa hiru hilabete epean egin beharko da, lehen baldintzan aipatu sei hilabete edo urtebeteko epea bukatzen denetik, eta horrez gainera, zerga arloko administrazioari jakinarazi beharko zaio erregelamenduz ezartzen den epean.

Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketen kasuan, aldaketa egiteko hiru hilabete epea foru lege honen 108 terdecies artikuluan aipatzen den abenduaren 31ko mugaegunetik hasiko da kontatzen”

Hamabost. 28.5.5.a artikulua.

“5.a Eragiketen hartzailearen kenkariak zuzentzen direnean (foru lege honen 60.2.2.a artikuluko laugarren lerroaldean xedatutakoaren arabera egin beharko da) sortuko da Ogasun Publikoaren aldeko kreditua.

Zergari atxikitako eragiketen hartzaileak ez badu zergaren kenkari osorako eskubiderik izan, Ogasun Publikoaren zordun ere izanen da; kenkari gabeko zergaren kuotaren zenbatekoa izanen du zor. Hartzaileak ez badu enpresaburu edo profesional izaerarekin jarduten, eta zor hori ordaindu ez badu, aurreko laugarren zenbakiko C) letran ezarritakoa aplikatuko da”

Hamasei. 31.1.2. artikuluarri g) letra gehitzea.

“g) Foru lege honen eranskineko bederatzigarren atalean zehaztutako produktuen entregak direnean:

– Zilarra, platinoa eta paladioa, gordinik, hautsean edo erdi landuta; eskuratzen dituen enpresaburuak edo profesionalak metal horiek eraldatu eta egiten dituen entregean parekoak izanen dira. Betiere, erabilitako ondasunei, artelanei, antzinako gauzei eta bildumagaiei aplikatzen zaien araubide bereziaren aplikazio eremuan sartu gabeko produktuak izan beharko dute.

– Sakelako telefonoak.

– Bideojokoen kotsolak, ordenagailu eraman-garriak eta tableta digitalak.

Azken bi marratxoetan aurreikusitakoa honako hartzaile hauei bakarrik aplikatuko zaie:

a') Ondasun horiek berriz saltzen dituen enpresaburu edo profesionala, zein den ere entregaren zenbatekoa.

b') Aurreko letran aipatutakoez bestelako enpresaburu edo profesionala, hari egindako ondasun horien entregean (fakturan bakar batean dokumentatuak) guztirako zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa denean, balio erantsiaren gaineko zerga gabe.

Aipatu muga kalkulatzeko, egindako entregean guztirako zenbatekoa hartuko da kontuan, baldin eta faktura batean baino gehiagotan dokumentatuta egon arren, eragiketa bakar bat baino ez dela izan frogatzen denean, baita artifizialki banatu dela ere, arau honen aplikazioa saihesteko, beste ondorioz gabe.

Ondasuna eskuratu baino lehen edo eskuratzen den aldi berean frogatu beharko da enpresaburu edo profesional izatearen baldintza, aurreko bi letran aipatu dena, erregelamenduz zehaztuko den moduan.

Ondasun horien entregak, hartzaileak 2. idatz-zati honetan ezarritakoaren arabera zergaren subjektu pasiboak diren kasuetan, faktura batean dokumentatu beharko dira, serie berezi baten bitartez”

Hamazazpi. 35.5.a) artikulua.

“a) Autolikidazioak zuzentzeko prozedura has-tea Zerga Administrazioan”

Hemezortzi. 37.Bat artikulua.1, 5.a, 6.a eta 8.a

“5.a Albaitaritzan erabiltzen diren botikak”

“6.a Honako ondasun hauek:

a) Nomenklatura Konbinatuko “Farmaziako produktuak” izeneko 30. kapituluan sartutako farmaziako produktuak, azken kontsumitzaileak zuzenean erabil ditzakeenak; ez dira Bat.1 idatz-zati honen 5. zenbakian sartutakoak izanen, ezta artikuluko honen Bi.1 idatz-zatiko 3. zenbakian ezarritako tasa aplikatzen zaienak ere.

b) Konpresak, tanpoiak, slip-babesak, preserbatiboak eta botikak ez diren beste antisorgailu batzuk.

c) Medikuen ekipoak, aparatuak eta gainerako tresnak, lege honen eranskineko bederatzigarren idatz-zatian aipatzen direnak, beren ezaugarri objektiboengatik gorputzeko, buruko, adimeneko edo zentzumenetako akatsak dituztenek beren gaitzak bakarrik arintzeko edo tratatzeko diseina-

tuta daudenak, artikuluko honen bi.1 idatz-zatian aurreikusitakoa galarazi gabe.

Ez dira letra honetan sartzen ondasun horien beste osagarri, aldagarri eta ordezeko piezak?

“8.a Loreak, landare apaingarri bizidunak, baita haziak, erraboiak, aldaxkak eta haiek lortzeko erabiltzen ahal diren landare jatorrikoak baino ez diren beste produktu batzuk”

Hemeretzi. 37 artikulua. Bi.1, 3.a, 4.a eta 5.a

“3.a Jendeak erabiltzeko botikak, baita forma galenikoak, formula magistralak eta prestakin ofizinalak ere”

“4.a Mugitzeko gaitasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onesten duenak, bere I. eranskineko 20. zenbakian aipatzen dituenak, Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak II A eranskinean emandako idazketaren arabera, eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako baizik ez diren gurpil-aulkiak.

Gurpil-aulkian desgaitasunak dituztenak garraiatzeko autotaxi edo autoturismo gisa erabiltzekoak diren ibilgailuak, dela zuzenean, dela aldeztatik egokiturik, hala nola ibilgailu motordunak, aldeztatik egokiturik edo gabe, mugikortasun murriztua duten edo gurpil-aulkian ibili beharra duten minusbaliatuak garraiatzen ibiltzeko direnak, kontuan izan gabe haien gidaria nor den.

Aurreko lerroaldean sartzen diren ibilgailuei zerga tasa murriztua aplikatuz gero, eroslearen eskubidea aldeztatik onartua izan behar da, eta ibilgailua zertarako den frogatu behar du.

Bigarren idatz-zati honen ondorioetarako, 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak hartuko dira pertsona minusbaliatutzat. Desgaitasun maila frogatzeko, Foru Komunitateko gizarte ongizateko zerbitzuek luzatutako ziurtagiria edo ebazpena behar du, edo bestela Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo erkidego autonomoetako organo eskudunak luzatutakoa?”

“5.a Desgaitasunak dituztenentzako protesiak, ortesiak eta barneko inplantak”

Hogei. 37. Bi artikulua. 2.1.a

“1.a Bigarren idatz-zati honen 1.4. zenbakiko lehenengo lerroaldean jasotako ibilgailuak eta gurpil-aulkiak konpontzeko zerbitzuak eta autotaxiak eta autoak eta agindu horren beraren bigarren lerroaldean aipatutako ibilgailu motordunak des-

gaitasunak dituztenentzat egokitzeko zerbitzuak, horien gidaria edonor izanik ere”

Hogeita bat. 38.1 artikulua.

“1. Subjektu pasiboek kenkariak egiten ahalko dituzte balio erantsiaren gaineko zergaren kuotetan, horiek herrialde barrenean zergapean egindako eragiketetan sorraraziak izanik, baldin eta, lurralde berean jasanarazita, zuzenean jasanarazi badira edo eragiketa hauei badagozkie:

1.a Zergaren beste subjektu pasibo batek egindako ondasun entregak eta zerbitzu-emateak.

2.a Ondasun inportazioak.

3.a Foru lege honetako 9.1. c) eta d); 31.1.2. eta 4. eta 85 quinquies artikuluetan jasotzen diren ondasun entregak eta zerbitzu-emateak.

4.a Foru lege honen 13. artikuluko 1. idatz-zatian eta 16. artikuluan definitzen diren Europar Batasunaren barreneko eskurapenak”

Hogeita bi. 39. artikuluar 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Zergari lotutako eragiketak eta, batera, foru lege honen 7.8. artikuluan ezarritakoa aplikatuz lotu gabeko eragiketak egiten dituzten subjektu pasiboek aldi berean eragiketa batzuk eta besteak egiteko eskuratutako ondasun eta zerbitzuengatik jasandako kuoten kenkaria egiten ahalko dute, zergari lotutako eragiketak garatzeko erabilitako ondasun eta zerbitzuei dagozkien kuotak egozteko arrazoizko irizpide homogeen baten arabera; ondorio horietarako, foru lege honen 40.1.2. artikuluan aipatzen diren eragiketak sartzen dira. Irizpide horri eutsi behar du, non ez dauden zentzuzko arrazoiak, hura aldatzera eramaten dutenak.

Behin-behineko zehazten ahalko da irizpide horren aplikaziotik ateratzen den kalkulua, aurreko urteko datuak kontuan hartuta, urte bukaera bakoitzean bidezkoa den erregularizazioa galarazi gabe.

Aurrekoa gorabehera, foru lege honen 7.8. artikuluan aipatzen diren zergari lotu gabeko eragiketak egiteko baino ez diren ondasun edo zerbitzuen eskurapen edo inportazioengatik jasandako edo ordaindutako kuotak ezin izanen dira kengarri izan inolako proportzioan.

Idatz-zati honetan ezarritako kenkariak foru lege honen VII. tituluko I. kapituluaren aurreikusitako baldintza eta beharkizunei ere egokitu zaizkie eta, bereziki, hainbanaketa-erregelari dagozkienak”

Hogeita hiru. 44. artikuluari 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Bidaia bat egiteko, ondasun eta zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasandako edo ordaindutako kuoten kenkarirako eskubidea eragiketa horri dagokion zerga sorrarazten den unean sortuko da; zuzenean bidaiariaren onuraren aldekoak izan beharko dute (foru lege honen 91. artikuluan aipatzen dira) eta haien helburuko eragiketari ezin izanen zaio aplikatu bidaia agentzien araudi berezia, legearen 92. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.”

Hogeita lau. 47.1 artikulua.

“1. Enpresa edo lanbide jarduerako sektore berezietan jarduera ekonomikoak egiten dituzten subjektu pasiboek berezita aplikatu beharko dute kenkarien araubidea haietako bakoitzari buruz.

Foru lege honen 9. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako a'), c') eta d') letratan xedatutakoa aplikatuz zehazten diren enpresa edo lanbide jarduerako sektore berezietei hainbanaketa bereziaren erregela aplikatzen ahalko zaie, bakoitzari berea.

Beti ere, foru lege honen 9.1.c) artikuluko b') letratan xedatutakoa aplikatuz zehaztutako jarduera sektore berezietei dagozkien kenkari araubideak lege horretan araubide berezi erraztuarentzat, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubidearentzat, inbertsioko urre bidezko eragiketen araubidearentzat eta baliokidetasun-errekarguaren araubidearentzat aurreikusitakoaren arabera arautuko dira: zein dagokion, haren arabera.

Ondasunak edo zerbitzuak hainbat jarduera sektore berezietan batera erabiltzeko eskuratu edo inportatzen direnean, foru lege honen 50. artikuluko 2. idatz-zatian eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da eskurapen edo inportazio horietan jasandako kuotei zer kenkari portzentaje aplikatzen ahal zaien zehazteko; horretarako, sektore berezitu bakoitzean egindako eragiketak kontatuko dira, eta kontuan hartuko da nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziko edo baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziko eragiketek ez dutela kenkarirako eskubiderik sortzen.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren salbuespen gisa, entitate taldearen jarduera sektore berezitan egindako eragiketak ez dira kontuan hartuko. Orobat, eta aipatu lerroaldean aurreikusitakoa aplikatu ezina izanik, ondasun edo zerbitzu horiek aldi berean araubide berezi erraztuaren babeseko jardueretan eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziaren edo baliokidetasun-errekarguarenaren menpeko beste jarduera

batzuetan erabiltzen direnean, aipatu kenkariaren portzentajea ehuneko 50ekoa izanen da araubide erraztuaren ondorioetarako, baldin eta ondorioa aipatu araubide berezietako biren menpeko jardueri buruzko bada; bestela, heren batekoa.”

Hogeita bost. 49.2.2 artikulua.

“2. Hainbanaketa orokorraren erregela aplikatuta urte natural bateko kuota kengarrien guztirakoa hainbanaketa bereziaren erregela aplikatuta aterako litzatekeena baino ehuneko 10 edo handiagoa denearan.”

Hogeita sei. 65. artikulua 1. eta 5. idatz-zatiak.

“1. Hauek dira balio erantsiaren gaineko zergaren araubide bereziak:

1.a Araubide erraztua.

2.a Abeltzaintzaren, nekazaritzaren eta arrantzaren araubide berezia.

3.a Ondasun erabilien, artelanen, antzinako gauzen eta bildumagaien araubide berezia.

4.a Inbertsioko urre bidezko eragiketen araubide berezia.

5.a Bidaia agentzien araubide berezia.

6.a Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia.

7.a Telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako eta bide elektronikoz ematen diren zerbitzuei aplikatzen zaizkien araubide bereziak.

8.a Entitate taldearen araubide berezia.

9.a Kutxa irizpidearen araubide berezia.”

“5. Telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako eta bide elektronikoz ematen diren zerbitzuei aplikatzen ahal zaizkien araubide bereziak foru lege honen 108 noniesdecies eta 108 duovicies artikuluetan aurreikusitako aitortpenak aurkeztu dituzten operadoreei aplikatuko zaizkie.

Hogeita zazpi. 69.1 artikulua.

“1. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia kapitulu honetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantzako ustiatgien titularrei aplikatuko zaie, non ez dioten hari uko egiten erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

Araubide berezi honen ondorioetarako, honako hauek ez dira nekazaritza, baso, abeltzaintza edo arrantzako ustiatgien titulartzat joko:

a) Errentamenduan edo apartzerian lagatzen diren finka edo ustiatgien jabeak, edo beste edo-

zein moduz haien ustiaketa lagatzen dutenean, baita finka edo ustiatzietako pinuen erretxinaren aprobetxamendua lagatzen dutenean ere.

b) Abeltzeiak abeltzaintza integratuaren araubidean ustiatzen dituztenak.”

Hogeita zortzi. 69.2.2 artikulua.

“6.a Aurreko urtean, enpresaburuek edo profesionalak beren enpresa edo lanbide jardueraz guztietarako eskuratu eta inportatutako ondasun eta zerbitzuak, ibilgetuko elementuei buruzkoak kenduta, 150.000 eurotik gorakoak direnean, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo.

Aurreko urtean jardueraren bat hasi bada, eskuratu eta inportatutakoaren zenbatekoa urtean sartuko da.”

Hogeita bederatzia. VIII. tituluko VI. kapitulua.

“VI. KAPITULUA

Bidaia agentzien araubide berezia

86. artikulua. Bidaia agentzien araubide berezia.

1. Honako hauei aplikatuko zaie bidaia agentzien araubide berezia:

1.a Bidaia agentziek egindako eragiketei, beren izenean ari direnean bidaiariak ordezkatzuz eta beste enpresaburu edo profesional batzuek entregatutako ondasunak edo emandako zerbitzuak erabiltzen dituztenean bidaia egiteko.

Araubide berezi honen ondorioetarako, bidaiatzat joko dira ostatu emateko zerbitzua edo garraiokoa, horiek batera eman edo zein bere aldetik; orobat, haien osagarriak ere, halakorik bada.

2.a Zirkuitu turistikoan antolatzaileek eta aurreko idatz-zatian aurreikusitako inguruabarrak betetzen dituen edozein enpresaburuk edo profesionalak egindako eragiketei.

2. Bidaia egiteko, garraioko edo ostalaritzako norberaren baliabideak bakarrik erabilia egindako eragiketei ez zaie bidaia agentzien araubide berezia aplikatuko.

Hein batean norberaren baliabideak eta beste hein batean besterenak erabiliz egindako bidaiak direnean, besteren baliabideez egindako zerbitzuei bakarrik aplikatuko zaie araubide berezia.

87. artikulua. Zergaren jasanarazpena.

Araubide berezi hau aplikatzen den eragiketetan, subjektu pasiboak ez dira behartuta egonen kuota jasanarazia fakturan bereizita ezartzera, eta

eragiketaren prezioaren barrenean dela ulertu behar da.

88. artikulua. Salbuespenak.

Bidaia agentzien araubide bereziaren menpeko subjektu pasiboek emandako zerbitzuak zergatik salbuetsita egonen dira ondasun entregak edo zerbitzu emateak, bidaiariaren onuraren alde egindakoak eta bidaia egiteko erabiliak, erkidegotik kanpo burutzen direnean.

Aipatu ondasun entregak edo zerbitzu emateak hein batean bakarrik egiten direnean Erkidegoaren lurraldean, agentziak lurralde horretatik kanpo egindako zerbitzuen zatiak bakarrik izanen du salbuespenaren onura.

89. artikulua. Zergapeko egitatearen kokalekua.

Bidaia bat egiteko bidaiari bakoitzari buruz agentziek egiten dituzten eragiketak zerbitzu bakar bat gisa hartuko dira kontuan, nahiz bidaia horretan entrega edo zerbitzu bat baino gehiago egin.

Agentziak bere jardueraz ekonomikoa egoitza non duen edo eragiketa egiteko non daukan establezimendu iraunkor bat, zerbitzua toki horretan egindakotzat joko da.

90. artikulua. Zerga-oinarria.

Bat. Bidaia agentzien marjina gordina izanen da zerga-oinarria.

Ondorio horietarako, bezeroari guztira kargatutako diru kopuruaren (eragiketa kargatzen duen balio erantsiaren gaineko zerga kenduta) eta agentziak bidaia egiteko eta zuzenean bidaiariaren onuraren alde beste enpresaburu edo profesional batzuek eskuratzen dituen ondasun entregak edo zerbitzu emateen benetako zenbatekoaren (zergak barne) arteko aldea izanen da marjina gordina.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren ondorioetarako, agentziak bidaiari erabiltzeko eskuratutakotzat joko dira, besteak beste, beste bidaia agentzia batzuek helburu horrekin egindako zerbitzuak, txikizkako agentziek, handizkako izenean eta haien kontura, azken horiek antolatutako bidaiak saltzeko egindako bitartekotza zerbitzuak kenduta.

Agentziaren marjina gordina zehazteko, ez dira kontuan hartuko foru lege honen 88. artikuluan xedatutakoaren ondorioz zergatik salbuetsitako eragiketei dagozkien kopuruak edo zenbatekoak, ezta haiek egiteko erabilitako ondasun edo zerbitzuenak ere.

Bi. Besteak beste, hurrengo zerbitzuak ez dira emandakotzat hartuko bidaia bat egiteko:

1. Atzerriko moneta saldu eta erosteko edo aldatzeko eragiketak.

2. Agentziaren telefono, telex eta postako gatuak, baita antzeko beste batzuk ere.

91. artikulua. Kenkariak.

Araubide hau aplikatzen zaien bidaia agentziek foru lege honen VII. tituluan ezarritako moduan gauzatzen ahalko dituzte beren kenkariak.

Dena dela, ezin izanen dute kenkarietan sartu bidaia egiteko eskuratzen dituzten ondasun eta zerbitzuetan jasandako zerga, horien ondorioa zuzenean bidaiariaren onura izanik.

92. artikulua. Noiz ez den aplikatuko araubide berezia.

Foru lege honen 86. artikuluan aurreikusitakoaren salbuespen gisa, eta erregelamenduz ezarriko den moduan, subjektu pasiboek zilegi izanen dute kapitulu honetan aurreikusitako araubide berezia ez aplikatzea eta bai zerga honen araubide orokorra, eragiketaz eragiketa, egiten dituzten zerbitzuetan, baldin eta, foru lege honen VII. tituluan aurreikusitakoaren arabera, horien hartzaileak kenkarirako eskubidea edo balio erantsiaren gaineko zerga itzultzekoa duten enpresaburuak edo profesionalak badira.

Hogeita hamar. 99.2. artikulua.

“2. Araubide berezi honen menpeko subjektu pasiboak ez dira behartuta egonen likidazioa egitera, ezta Ogasun Publikoari zerga ordaintzera ere, haiek egindako merkataritzako eragiketengatik, horiek araubide berezi honen xedekoak badira, ezta jarduera horietan bakarrik erabilitako ondasun edo eskubideen eskualdakengatik ere, zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezinaren entregak izan ezik; izan ere, horienegatik eskualdatzaileak zergaren kuota sorraraziak jasanarazi eta likidatu beharko ditu, batia haien diru-sarrerara egin ere.

Edozein eratako ondasunak eskuratu edo inportatzeagatik edo eman zaizkien zerbitzuengatik jasandako kuotak ere ezin izanen dira kenkarietan sartu, baldin eta ondasun edo zerbitzu horiek araubide berezi honen eraginpeko jarduerak egiteko erabiltzen badira.

Inbertsioko ondasunengatik kenkariak erregularizatzeko, jarduera ekonomikoaren sektore berezitu honi aplikatzen ahal zaion kenkarirako hainbanaketa zero izanen da subjektu pasiboa araubide berezi honen menpe dagoen bitartean. Ez da bidezkoa izanen foru lege honen 56. artikuluan aipatu erregularizazioa egitea araubide berezi honen menpeko jardueretarako bakarrik erabiltzen

diren inbertsioko ondasunak eskualdatzen diren kasuetan.”

Hogeita hamaika. 108 quinquies artikulua, Bat eta Bi idatz-zatiak.

“Bat. Entitate talde baten parte diren enpresaburuak edo profesionalak entitate taldearen araubide berezia aplikatzen ahalko dute Hitzarmen Ekonomikoak ezartzen duen moduan. Entitate nagusi batek eta bere menpeko entitateek osatutakoa izanen da entitate taldea; beren artean estu lotuta egon beharko dute finantza, ekonomia eta antolaketa arloetan, erregelamenduz garatuko den moduan eta, betiere, haien guztien jarduera ekonomikoaren egoitzek edo establezimendu iraunkorrek zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta egon beharko dute.

Enpresaburu edo profesional bakar batek ere ezin izanen du aldi berean entitate talde baten baino gehiagoren parte izan.”

“Bi. Hurrengo baldintzak betetzen dituena hartuko da entitate nagusitzat:

a) Nortasun juridiko propioa izatea. Dena dela, zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta dauden establezimendu iraunkorrek horiei atxikitako partaidetzak dituzten entitateen entitate nagusi izaten ahalko dira, baldin eta lerroalde honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

b) Taldeko entitateen gaineko kontrol eraginkorra izatea, haien kapitalean edo boto eskubideetan ehuneko 50etik gorako partaidetza izanez, zuzenean edo zeharka.

c) Partaidetza hori urte natural osoan mantentzea.

d) Zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta dagoen eta nagusi izateko baldintzak betetzen dituen beste entitate baten menpekoa ez izatea.

Aurreko Bat idatz-zatian aurreikusitakoa gorabehera, enpresaburu edo profesional gisa jokatzeko ez duten merkataritzako sozietateak entitate nagusitzat hartzen ahalko dira; betiere, aurreko baldintzak betez gero.”

Hogeita hamabi. 108 octies artikulua, Hiru.

“Hiru. Foru lege honen 108. sexies. Bost artikuluan ezarritako aukera erabiltzen denean, artikuluan honen lehen idatz-zatian aipatzen diren eragiketek jardueraren sektore berezitua eratuko dute, eta hari atxikitzat joko dira aipatu eragiketak egiteko, zuzenean edo zeharka, erabat edo hein batean, erabilitako ondasun eta zerbitzuak, horiek direla eta zerga jasan edo ordaindu izanik.

Enpresaburuek edo profesionalak kenkarietan osorik sartzen ahalko dituzte eragiketa horiek zuzenean edo zeharka, erabat edo hein batean, egiteko eskuratu ondasun eta zerbitzuengatik jasan edo ordaindutako kuotak; betiere, ondasun eta zerbitzu horiek kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketak burutzeko erabili beharko dira, foru lege honen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Aipatu ondasun eta zerbitzuek izan dezaketen destinoaren arabera burutuko da kenkari hau, hura aldatuz gero zuzendu beharra galarazi gabe.”

Hogeita hamahiru. VIII. tituluari VIII. kapitulua kentzea eta XI.a gehitzea.

“XI. KAPITULUA

Telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako eta bide elektronikoz ematen diren zerbitzuei aplikatzen zaizkien araubide bereziak

1. atala

Xedapen orokorrak

108 septiesdecies artikulua. Definizioak eta baztertze arrazoiak.

Bat. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako definizio hauek aplikatuko dira:

a) “Telekomunikazioetako zerbitzuak”, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 69. artikulua Hiru idatz-zatiaren 3. zenbakian aipatzen diren zerbitzuak.

b) “Zerbitzu elektronikoak” edo “bide elektronikoz emandako zerbitzuak”, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 69. artikulua Hiru idatz-zatiaren 4. zenbakian aipatzen diren zerbitzuak.

c) “Irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuak”, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 69. artikulua Hiru idatz-zatiaren 5. zenbakian aipatzen diren zerbitzuak.

d) “Kontsumoko estatu kidea”, hau da, telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak ematen diren tokiko estatu kidea, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 70. artikulua Bat idatz-zatiaren 4. eta 8. zenbakietan xedatutakoaren arabera.

e) “Telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuei eta zerbitzu elektronikoei aplikatzen zaizkien araubide berezien aldiro aitortpen-likidazioak”, hau da, kontsumoko estatu kide bakoitzean dagokion zergaren zenbatekoa

zehazteko behar den informazioa jasotzen duen aitortpen-likidazioa.

Bi. Ondoren aipatzen diren inguruabarretako edozein izan daiteke araubide berezi horietatik baztertze arrazoi:

a) Araubide berezi horietako eragiketak uzteko deklarazioa aurkeztea.

b) Araubide berezi horietan sartutako enpresaburuaren edo profesionalaren eragiketak bukatu direla pentsarazten duten egitateak izatea.

c) Araubide berezi horien babesera jotzeko beharrezko baldintzak ez betetzea.

d) Araubide berezi horietako araudiak ezarritako betebeharrak behin eta berriro ez betetzea.

Araubide berezi horietako bakoitzerako definitutako identifikazioko estatu kidearena bakarrik izanen da baztertze erabakia.

Hiru. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa galaz gabe, enpresaburuak edo profesionalak bere borondatez ematen ahalko du baja araubide horietan.

Lau. Erregelamenduz ezarriko dira kapitulu honetan xedatutakoa garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapenak.

2. atala

Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuek edo profesionalak telekomunikazioez, irrati-difusioz edo telebistaz eta bide elektronikoz emandako zerbitzuei aplikatzen zaien araubide berezia

108. octiesdecies artikulua. Aplikazio eremua.

Bat. Erkidegoan finkatuta ez dauden enpresaburuak eta profesionalak, hala jakatuta, atal honetan aurreikusitako araubide bereziari atxikitzen ahalko zaizkio, telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak ematen badizkiete enpresaburu edo profesionalen izaera ez duten eta Erkidegoan finkatuta dauden edo ohiko helbide edo bizilekua bertan duten pertsonen.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 70. artikulua Bat idatz-zatiaren 4. eta 8. zenbakietan edo beste estatu kide batzuen legerietan haren pareko direnetan xedatutakoaren arabera, Erkidegoan egindakotzat jo behar diren zerbitzu emate guztiei aplikatuko zaie araubide berezia.

Bi. Atal honen ondorioetarako, hona zer diren:

a) “Erkidegoan finkatuta ez dagoen enpresaburu edo profesionala”: jarduera ekonomikoaren egoitza Erkidegotik kanpo duten enpresaburu edo

profesionalak, Erkidegoaren lurraldearen barnean establezimendu iraunkor bat ez dutenak eta, halaber, beste arrazoi batengatik, Erkidegoan identifikatuta egon beharrik ez dutenak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 164. artikuluko Bat idatz-zatiko 2. zenbakiaren arabera edo beste estatu kide batzuen legerietan baliokide direnen arabera.

b) "Identifikazioko estatu kidea": Erkidegoan finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak aukeratzen duen estatu kidea Erkidegoaren lurraldean, enpresaburu edo profesional gisa, jardueran hasi dela deklaratzeko.

108 noniesdecies artikulua. Formazko betebeharrak.

Bat. Espainia izatera Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak aukeratzen duen identifikazioko estatu kidea, honako hauetara egonen da behartua:

a) Araudi berezi honetan dituen eragiketen hasiera, aldaketa edo bukaera deklaratzera. Deklarazio hori bide elektronikoz aurkeztuko da.

Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak, bere zergapeko jardueren hasiera deklaratzean, identifikazio datu hauek erantsiko ditu: izena, postaren helbidea eta posta elektronikoa, internet guneen helbide elektronikoa (halakorik erabiliz gero), zer zenbakiren bidez dagoen identifikatuta bere jardueraren egoitza duen hirugarren lurraldeko zerga arloko administrazioaren aurrean, eta deklarazio bat, adierazteko ez dagoela Erkidegoko beste estatu kide batean identifikatuta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako. Orobat, Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak informazio horretan izan daitekeen edozein aldaketaren berri emanen du.

Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan finkatutako enpresaburuaren edo profesionalen kasuan, haien zergapeko jardueren hasiera deklaratzean eman beharreko informazioan izena, posta helbidea eta posta elektronikoa, erabiltzen dituen internet guneen helbide elektronikoa eta Espainiako zerga arloko administrazioak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko ditu.

Araubide honen ondorioetarako, zerga arloko administrazioak zenbaki banarekin identifikatuko ditu Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak.

Zerga arloko administrazioak bide elektronikoz jakinaraziko dio Erkidegoan finkatu gabeko enpre-

saburuari edo profesionalari zer identifikazio zenbakia esleitu zaion.

b) Balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpen-likidazioa bide elektronikoz aurkeztera hiruhileko natural bakoitzeko, telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoa eman edo ez. Aitorpenak ezin du negatiboa izan, eta aitorpenaren xedeko epealdi bukaeratik hogeitun eguneko epean aurkeztuko da.

Aitorpen-likidazio horretan zerga arloko administrazioak aurreko a) letran aurreikusitakoaren arabera jakinarazitako identifikazio zenbakia adieraziko da; gainera, zerga sorrarazi den kontsumoko estatu kide bakoitzeko, aitorpenaren xedeko epealdian eman diren telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuen eta zerbitzu elektronikoen guztirako balioa, eragiketa kargatzen duen balio erantsiaren gaineko zerga kanpo, estatu kide bakoitzari dagokion zergaren kopuru orokorra (zerga tasen arabera xehakaturik) eta guztirako zenbatekoa, horien guztien batura, Espainian ordaindu beharrekoa.

Eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroa ez den beste moneta batean finkatu bada, eurotan adieraziko da likidazio aldiko azken egunari dagokion kanbio-tasa balioduna aplikatuta. Europako Banku Zentralak egun horretarako argitaratutako kanbio-tasei jarraituz egingen da kanbioa edo, egun horretarako argitalpenik ez bada, bihar munekoei.

Aurkeztutako aitorpenetan jasotako zifretan edozein aldaketa egitekotan, hasierako aitorpena aurkeztu behar zeneko datatik hiru urteko epean, gehienez ere, egin beharko da, autolikidazioak eta aitorpen osagarriak zuzentzeko prozedura baliatuz, Tributuari buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 120.3 eta 122. artikuluetan, hurrenez hurren, eta legea garatzen duen araudian aurreikusita baitago. Dena dela, aipatu epea bukatu ondoren, kontsumoko estatu kideak zuzenketak onartzen ahalko ditu, bere tributu arloko araudi nazionalen aurreikusitakoari jarraituz.

c) Aitorpen bakoitzari dagokion zergaren diru-sarrerara egitera, zer berriazko aitorpen dagokion aipatuta; zenbatekoa eurotan sartuko da zerga arloko administrazioak aukeratutako banku kontuan, aitorpena aurkezteko epearen barnean.

Sartutako zenbatekoen edozein zuzenketa, zergari beste diru-sarrera bat gehitzen diona, egitekotan, dagokion berriazko aitorpena aipatuta egin beharko da, eta ezin zaio geroagoko beste aitorpen bati gehitu edo erantsi.

d) Araubide berezi honetako eragiten erregistroa mantentzera. Erregistro horrek behar bezain zehatza izan beharko du, kontsumoko estatu kideko zerga arloko administrazioa gauza izan dadin aurreko b) letran aipatu aitorpena zuzena den egiaztatzeko.

Erregistro hori identifikazioko estatu kidearen zein kontsumokoaren eskura egonen da, eta Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburua edo profesionala behartua egonen da hura bide elektronikoz aipatu estatuen zerga arloko administrazioen eskura jartzera, haiek eskatu ondoren.

Finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak hamar urtez gorde beharko du erregistro hori, eragiketa zer urtetan egiten den, haren bukaeratik hasita.

e) Faktura, erregelamenduz erabakiko denaren arabera, egin eta aurkeztera, eragiketen hartzailea zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta dagoenean edo ohiko helbide edo bizilekua bertan duenean.

Bi. Erkidegoan finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak araubide berezian hasteko deklarazioa Espainiaz kanpoko beste estatu kide batean aurkeztea aukeratu baldin bada, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 70. artikuluan Bat idatz-zatiaren 4. eta 8. zenbakietan xedatutakoaren arabera, zerga aplikatzen den lurraldearen barnean egindakotzat hartu behar diren eragiketei dago kienez, aurreko idatz-zatian aipatu deklarazioa identifikazioko estatu kidean aurkeztearekin batera egin behar da eragiketa horiei dagokien zergaren diru-sarrera.

Gainera, Erkidegoan finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak aurreko Bat idatz-zatian aipatu betebeharrak identifikazioko estatu kidean bete beharko ditu eta, bereziki, idatz-zati horren d) letran adierazitakoak.

108 vicies artikulua. Jasandako kuoten kenkari-rako eskubidea.

Bat. Araubide berezi honi atxikitzen zaizkion Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuek edo profesionalak ezin izanen dute kenkaririk izan foru lege honen 108 noniesdecies artikuluko Bat idatz-zatiko b) letran aipatzen den aitorpen-likidazioan; alegia, ez dituzte kenkarietan sartuko, aplikagarri diren arauen arabera, telekomunikazioetako, irratidifusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikokoak, araubide honen xedekoak, emateko diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasandako kuotak.

Aurrekoa gorabehera, araubide berezi honi atxikitzen zaizkion enpresaburu edo profesional horiek eskubidea izanen dute telekomunikazioetako, irratidifusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikokoak emateko diren ondasun eta zerbitzuak, araubide berezi honen xedekoak, eskuratzean edo inportatzean jasandako balio erantsiaren gaineko zergak itzul dakizkien, haiek kontsumoko estatu kidean egindakotzat jo beharrekoak direnean, kontsumoko estatu kidearen araudian aurreikusitako prozedurari jarraituz, Kontseiluaren 1986ko azaroaren 17ko 86/560/EEE Zuzentarauak xedatzen duena garatzen baitu, 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauaren 368. artikuluan aurreikusitako moduan. Bereziki, zerga aplikatzen den lurraldean egindakoak salbu, jasandako kuotak itzultzeko eskatuko dute Kanariar Uharteetan, Ceutan eta Melillan finkatuta dauden enpresaburuek edo profesionalak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 117 bis artikuluan aurreikusitako prozeduraren bitartez.

Bi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 119. artikuluko Bi idatz-zatiko 2. zenbakian xedatutakoa galarazi gabe, Espainia baldin bada kontsumoko estatu kidea, araubide berezi honi atxikitzen zaizkion Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuek edo profesionalak eskubidea izanen dute zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat jo behar diren ondasun eta zerbitzuen eskurapenean edo inportazioan jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzul dakizkien; betiere, ondasun eta zerbitzu horiek telekomunikazioetako, irratidifusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikokoak, araubide berezi honen xedekoak baitira, emateko erabiliko dira. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 119 bis artikuluan aurreikusitakoa izanen da eskubide hori erabiltzeko prozedura.

Horren ondorioetarako, ez da eskatuko zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta dauden enpresaburu edo profesionalen aldeko tratuekiko-tasuna aitortua izatea. Artikulu honetan ezarritakora jotzen duten enpresaburuak edo profesionalak ez daude behartuta zerga arloko administrazioarako ordezkariarik izendatzera, ondorio horietarako.

Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan finkatutako enpresaburuen edo profesionalen kasuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 119. artikuluan aurreikusitakoa izanen da balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskubidea erabiltzeko prozedura, idatz-zati honen xedekoa.

3. atala

Erkidegoan bai baina kontsumoko estatu kidean finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak emandako telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuei eta bide elektronikoz emandakoei aplikatzen zaizen araubide berezia

108 unvicies artikulua. Aplikazio eremua.

Bat. Erkidegoan bai baina kontsumoko estatu kidean finkatu gabeko enpresaburuak eta profesionalak atal honetan aurreikusitako araubide bereziari atxikitzen ahalko zaizkio, telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak ematen badizkiete, enpresaburuak edo profesionalak izan gabe, hala jokatzeko duten eta estatu kide batean finkatuta dauden edo ohiko helbidea edo bizilekua bertan duten pertsonen.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 70. artikuluko Bat idatz-zatiko 4. eta 8. zenbakietan edo beste estatu kide batzuen legerietan baliokide direnetan xedatutakoaren arabera Erkidegoan egindakotzat jo behar diren zerbitzu emate guztiei aplikatuko zaie araubide berezia; betiere, araubide berezi honi atxikitako enpresaburuak edo profesionalak jardueira ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra zer estatu kideetan duen, zerbitzua beste batean emanez gero.

Bi. Atal honen ondorioetarako, hona zer diren:

a) "Kontsumoko estatu kidean finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak": bere jardueira ekonomikoaren egoitza erkidegoaren lurraldean finkatuta duten enpresaburu edo profesional guztiak, edo bertan establezimendu iraunkor bat dutenak, baina ez horrelakorik kontsumoko estatu kidearen lurraldean.

b) "Identifikazioko estatu kidea": enpresaburuak edo profesionalak zer estatu kideetan finkatuta duen bere jardueira ekonomikoaren egoitza, hura. Enpresaburuak edo profesionalak bere jardueira ekonomikoaren egoitza Erkidegoan finkatuta ez duenean, establezimendu iraunkor bat duen tokiko estatu kidea hartuko da kontuan edo, establezimendu iraunkorrak estatu kide batean baino gehiagotan izatera, enpresaburuak edo profesionalak aukeratzen duen estatua haren establezimendu iraunkorra duten estatu kideen artean. Azken kasu horretan, estatu kide bat aukeratzeak lotura sortuko dio enpresaburuari edo profesionalari, harik eta errebokatzen ez duen arte; nolahi ere, aukeraketaren aplikazioak hiru urte naturaleko balioa izanen du, gutxienez ere, zer urtetan egiten den aukera, hura ere barne dela.

Hiru. Atal honen ondorioetarako, Espainia izan da "identifikazioko estatu kidea" kasu hauetan:

a) Betiere, jardueira ekonomikoaren egoitza zerga aplikatzen den lurraldean duten enpresaburu edo profesionalentzat, eta jardueira ekonomikoaren egoitza Erkidegoaren lurraldean finkatu gabe baina zerga aplikatzen den lurraldean, eta ez beste inon, establezimendu iraunkor bat edo gehiago dutenentzat.

b) Jardueira ekonomikoaren egoitza Erkidegoaren lurraldean izan gabe, establezimendu iraunkor bat baino gehiago zerga aplikatzen den lurraldean eta beste estatu kideren batean dituzten enpresaburu edo profesionalak izanik, Espainia identifikazioko estatu kide izatea aukeratu dutenentzat.

108 duovicies artikulua. Formazko betebeharrak.

Bat. Espainia baldin bada identifikazioko estatu kidea, telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak beste estatu kide bateko araubide bereziari atxikirik ematen dituen enpresaburuak edo profesionalak honako hauetara behartua egonen da:

a) Araubide berezi honen barreneko eragiketen hasiera, aldaketa edo bukaera deklaratzera. Deklarazio hori bide elektronikoz aurkeztuko da.

b) Balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpen-likidazioa bide elektronikoz aurkeztera hiruhileko natural bakoitzeko, telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak eman edo ez. Aitorpenak ezin du negatiboa izan, eta aitorpenaren xedeko epealdi bukaeratik hogeitun eguneko epean aurkeztuko da.

Aitorpen-likidazio horretan zerga arloko administrazioak enpresaburuari edo profesionalari, zergarekin dituen betebeharrari begira, esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da; gainera, zerga sorrarazi den kontsumoko estatu kide bakoitzeko, aitorpenaren xedeko epealdian eman diren telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuen eta zerbitzu elektronikoaren guztirako balioa, eragiketa kargatzen duen balio erantsiaren gaineko zerga kanpo, estatu kide bakoitzari dagokion zergaren kopuru orokorra (zerga tasen arabera xehakaturik) eta guztirako zenbatekoa, horien guztien batura, Espainian ordaindu beharrekoa.

Enpresaburuak edo profesionalak Espainian ez beste estatu kide batean establezimendu iraunkor bat edo gehiago dituztenean, eta haietatik ematen dituztenean araubide berezi honen xedeko zerbitzuak, aitorpen-likidazioan, aurreko lehenaldian aipatu informazioa, kontsumoko estatu kide bako-

tzaren arabera xehakatu, erantsi beharko du establezimendu iraunkor bakoitzari buruz; horiek zergaren banakako identifikazio zenbakiaz edo establezimenduaren zerga arloko zenbakiaz identifikatuko dira.

Eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroa ez den beste moneta batean finkatu bada, eurotan adieraziko da likidazio aldiko azken egunari dagokion kanbio-tasa balioduna aplikatuta. Europako Banku Zentralak egun horretarako argitaratutako kanbio-tasei jarraituz eginen da kanbioa edo, egun horretarako argitalpenik ez bada, biharunekoei.

Aurkeztutako aitorpenetan jasotako zifretan edozein aldaketa egitekotan, hasierako aitorpena aurkeztu behar zeneko datatik hiru urteko epean, gehienez ere, egin beharko da, autolikidazioak eta aitorpen osagarriak zuzentzeko prozedura baliatuz, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 120.3 eta 122. artikuluetan, hurrenez hurren, eta legea garatzen duen araudian aurreikusita baitago. Dena dela, aipatu epea bukatu ondoren, kontsumoko estatu kideak zuzenketak onartzen ahalko ditu, bere tributuo arloko araudi nazionalen aurreikusitakoari jarraituz.

c) Aitorpen bakoitzari dagokion zergaren diru-sarrerara egitera, zer berariazko aitorpen dagokion aipatuta; zenbatekoa eurotan sartuko da zerga arloko administrazioak aukeratutako banku-kontuan, aitorpena aurkezteko epearen barrenean.

Sartutako zenbatekoen edozein zuzenketa, zergari beste diru-sarrerara bat gehitzen diona, egitekotan, dagokion berariazko aitorpena aipatuta egin beharko da, eta ezin zaio geroagoko beste aitorpen bati gehitu edo erantsi.

d) Araubide berezi honetako eragiten erregistro mantentzera. Erregistro horrek behar bezain zehatza izan beharko du, kontsumoko estatu kideko zerga arloko administrazioa gauza izan dadin aurreko b) letran aipatu aitorpena zuzena den egiaztatzeko.

Erregistro hori identifikazioko estatu kidearen zein kontsumokoaren eskura egonen da, eta enpresaburua edo profesionala behartua egonen da hura bide elektronikoz aipatu estatuen zerga arloko administrazioen eskura jartzera, haiek eskatu ondoren.

Enpresaburuak edo profesionalak hamar urtez gorde beharko du erregistro hori, eragiketa zer urtetan egiten den, haren bukaeratik hasita.

Bi. Espainia identifikazioko estatu kidearen zein kontsumokoaren eskura egonen da, eta enpresaburuak edo profesionalak Espainian bakkari aurkeztu beharko ditu aitorpen-likidazioak eta,

zein den kasua, kontsumoko estatu kide guztietan egindako eragiketa guztiei, araubide berezi honen xedekoei, dagokien zergaren zenbatekoa ordaindu.

108 tercieies artikulua. Jasandako kuoten kenkarirako eskubidea.

Bat. Araubide berezi honi atxikitzen zaizkion enpresaburuek edo profesionalak ezin izanen dute kenkaririk izan foru lege honen 108 duovicies artikuluko Bat idatz-zatiko b) letran aipatzen den aitorpen-likidazioan; alegia, ez dituzte kenkarietan sartuko, aplikagarri diren arauen arabera, telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak, araubide honen xedekoak, emateko diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasandako kuotak.

Aurrekoa gorabehera, araubide berezi honi atxiki eta kontsumoko estatu kidean araubide berezi honen xedeko eragiketekin batera beste batzuk egiten dituzten enpresaburuek edo profesionalak, eragiketa horiengatik erregistratuta egotera eta estatu kide horretan aitorpen-likidazioak aurkezteara behartuta egonik, kenkarietan sartzen ahalko dituzte ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasandako kuotak, estatu kide horretan aurkeztu behar dituzten zergaren aitorpen-likidazioen bitartez. Aipatu ondasun eta zerbitzuak, aplikagarri diren arauen arabera, kontsumoko estatu kidean egindakotzat hartuak izan beharko dute eta telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak emateko izan, araubide berezi honen xedekoak baitira.

Bi. Aurreko atalean aurreikusitakoa galarazi gabe, araubide berezi honi atxikitzen zaizkion enpresaburuek edo profesionalak eskubidea izanen dute ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta jasandako kuotak itzul dakizkien, haiek araubide honen xedeko telekomunikazioetako, irradi-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak emateko izanik, haiek kontsumoko estatu kidean egindakotzat jo beharrekoak direnean, kontsumoko estatu kidearen araudian aurreikusitako prozedurari jarraituz, Kontseiluaren 2008ko otsailaren 12ko 2008/9/EE Zuzentarauak xedatzen duena garatzen baitu, 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauaren 368. undecies artikuluan aurreikusitako moduan. Bereziki, zerga aplikatzen den lurraldean finkatutako enpresaburuaren edo profesionalaren kasuan, jasandako kuotak itzultzeko eskatuko dute Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 117 bis artikuluan aurreikusitako prozeduraren bitartez.

Hiru. Espainia bada identifikazioko estatu kidea, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean edo inportatzean jasaten diren kuotak kenkarietan sartzen ahalko dira haien aitorten-likidazioetan zergaren araubide orokorrari jarraituz, zerbitzu horiei atal honetan aurreikusitako araubide berezia aplikatu edo ez; zerga aplikatzen den lurraldean eskuratu edo inportatu beharko dira eta telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuak edo zerbitzu elektronikoak emateko erabili.

Lau. Espainia bada kontsumoko estatu kidea, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 119. artikuluko Bi idatz-zatiko 2. zenbakian xedatutakoa galarazi gabe, araubide berezi honi atxikitzen zaizkion enpresaburuek edo profesionalek eskubidea izanen dute zerga aplikatzen den lurraldean eskuratu edo inportatutako ondasun eta zerbitzuengatik balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta jasandako kuotak itzul dakizkien; betiere, ondasun eta zerbitzu horiek araubide berezi honen xedeko telekomunikazioetako, irrati-difusioko edo telebistako zerbitzuak eta zerbitzu elektronikoak emateko izanen dira. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 119. artikuluan aurreikusitakoa izanen da eskubide hori erabiltzeko prozedura.

108 quaterVICIES artikulua. Zerga aplikatzen den lurraldean bertan finkatutako enpresaburuek edo profesionalek emandako telekomunikazioetako zerbitzuak, irrati-difusioak edo telebistakoak, eta zerbitzu elektronikoak.

Idatz-zati honetan aurreikusitako araubide berezia ez zaie aplikatuko zerga aplikatzen den lurraldean egindako telekomunikazioetako zerbitzuei, irrati-difusiokoei edo telebistakoei eta zerbitzu elektronikoei, lurralde horretan jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra duten enpresaburuek edo profesionalek emanik. Zerbitzu emate horiei zergaren araubide orokorra aplikatuko zaie.

Hogeita hamalau. 109.1.4 artikulua.

“4.a Erregelamenduz definitutako moduan ezartzen diren kontabilitatea eta erregistroa eramatea, Merkataritzaren Kodean eta kontabilitateko gainerako arauetan xedatutakoa galarazi gabe.”

Hogeita hamabost. 112. artikuluari 3. idatz-zati berria gehitzea.

“3. Ondasunen inportazioetan, aduanako lege-rian muga-zergako eskubideetarako aurreikusitako moduan likidatuko da zerga.

Erregelamenduz ezarriko den moduan eginen da inportazioaren gaineko zergako kuoten diru-bil-

keta eta diru-sarrera, eta han ezartzen ahalko da zer baldintza eskatu subjektu pasiboari, administrazioak egindako likidazioa jasotzen duen dokumentua hartzen duten epealdiari dagokion aitorten-likidazioan kuotak sar ditzaten.”

Hogeita hamasei. 115. artikulua 2. idatz-zatiari 6., 7. eta 8. zenbakiak gehitzea.

“6.a Foru lege honen 31.1.2 artikuluko e) letra c) azpiletan aipatu eragiketen hartzaileek epe barrenean ez aditzera ematea edo oker aditzera ematea eragiketak gauzatzen dituzten enpresaburuei edo profesionalei enpresaburu edo profesional gisa ari direla eragiketa horietan, erregelamenduz araututako moduan.

“7.a Foru lege honen 31.1.2 artikuluko f) letran aipatu eragiketen hartzaileek epe barrenean ez aditzera ematea edo oker aditzera ematea eragiketak gauzatzen dituzten enpresaburuei edo profesionalei hurrengo inguruabarrak, erregelamenduz araututako moduan:

Eragiketa horiei dagokienez, enpresaburu edo profesional gisa jokatzeko ari direla.

Eragiketa horiek lursailak urbanizatzeko edo eraikinak eraiki edo zaharberritzeko prozesu baten barnean gauzatzen direla.

8.a Foru lege honen 112.3 artikuluko bigarren lerroaldean aipatzen diren subjektu pasiboek administrazioak likidatutako inportazio eragiketei dagozkien tributu kuotak autolikidazioan ez adieraztea edo oker adieraztea, nahiz ez osorik.”

Hogeita hamazazpi. 116. artikuluko 1. idatz-zatiari 6. eta 7. zenbakiak gehitzea.

“6.a 2. zenbakiko 6. eta 7. idatz-zatietan ezarritakoak, diru-isun proportzionala jarritz: komunikazioaren betebeharra bete ez den entrega eta eragiketei dagozkien kuota sorrarazien %1ekoa; gutxienez ere, 300 euro, eta gehienez ere, 10.000 euro.

“7.a 2. zenbakiko 8. idatz-zatian ezarritakoak, diru-isun proportzionala jarritz: autolikidazioan adierazi gabeko eragiketei aduanek egindako likidazioei dagozkien kuota sorrarazien %10ekoa.”

Hogeita hemezortzi. Seigarren xedapen gehigarri berria gehitzea:

“Seigarren xedapen gehigarria. Arauzko erreferentzia.

Foru lege honetan jasotzen diren “Erkidegoa” eta “Europar Erkidegoa” terminoak “Batasunari” buruzkoak dira; aldiz, “Europako Erkidegoak” edo “EEEkoak”, “Europar Batasunari” buruzkoak eta “erkidegokoa” eta “erkidegokoa” “Batasunari” buruzkoak.

Hogeita hemeretzi. Eranskinari bi atal gehitzea, bederatzigarrena eta hamargarrena:

“Bederatzigarrena. Foru lege honen 37.Bat.1.6. c) artikuluan aipatzen diren ondasunen zerrenda.

– Betaurrekoak, ukipen-lente graduatuak eta haiek erabili, zaindu eta mantentzeko behar diren produktuak.

– Zitzadako gailuak, glukosa maila automatikoki irakurtzeko gailuak, insulina txertatzeko gailuak eta diabetesa autokontrolatu eta tratatzeko gaineko aparatua.

– Gorputz zetonikoak eta odolaren koagulazioa autokontrolatzeko gailuak eta desgaitzen duten gaixotasunak autokontrolatu eta tratatzeko beste gailu batzuk, hala nola, morfina eta botika onkologikoak sartzeko sistemak.

– Pixa biltzeko poltsak, inkontinentziako xurgagarriak eta gerneraren eta eginkarien inkontinentziarako beste sistema batzuk, irrigazio sistemak barne.

– Protesiak, ortesiak, ortoprotesiak eta ebakuntza bidezko inplanteak, osagaiak eta osagarriak barne; bereziki, Osasunaren Sistema Nazionaleko zerbitzu komunaren zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoak.

– Trakeotomiako eta laringektomiako kanulak.

– Aulki terapeutikoak eta gurpildunak, baita eskaren aurkako kuxinak eta haiek erabiltzeko arnesak, makuluak, taka-takak eta desgaitasunak dituen jendea mugitzeko garabiak.

– Plataforma jasotzaileak, gurpil-aulkietarako igogailuak, eskaileretako aulki-egokigailuak, arrapala eramangarriak eta norbera zutik jartzeko barra autosostengagarriak.

– Lesioak edo barreneko malformazioak hobetzeko aparatua eta gainerako tresneria, hala nola, esekitzailak eta barizeak estutzeko jantziak.

– Dialisia etxean tratatzeko gailuak eta arnasarako tratamendua.

– Akats edo ezintasun bat konpentsatzeko diren medikuen ekipoak, aparatua eta gainerako tresneria, ikusteko eta entzuteko urritasuna dutenek beraiek bakarrik erabiltzeko diseinatuta daudenak.

– Gorputzeko, buruko, adimeneko edo zentzumenetako urritasuna dutenek beraiek bakarrik erabiltzeko diseinatuta dauden sostenguko produktu hauek:

• Janzten eta eranztzen laguntzen duten produktuak: oinetakoak sartzekoa eta botak kentzekoa,

lurrera iristeko kider bereziak dituztenak, pertxak, kakoak eta arropari posizio finko batean eusteko hagaxkak.

• Garbitzen laguntzen duten produktuak: altxak, beso-euskarriak eta komuneko bizkar-euskarriak.

• Garbitzen, bainatzen eta dutxatzen laguntzen duten produktuak: kider bereziak dituzten eskuila eta esponjak, bainatu edo dutxatzeko aulkiak, bainuontziko oholak, aulkitxoak, bainuontziaren luzera edo sakonera murrizteko produktuak, barrak eta heldulekuak.

• Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzen laguntzen duten produktuak, hala nola, buruaren edo begien mugimenduetarako saguak, kontraste handiko teklatuak, betikarako pultsadoreak, mugitzeko desgaitasun larria duten pertsonen ahotsaren bidez idazteko eta gailua erabiltzeko aukera ematen dien softwarea.

• Laguntzeko produktuak eta gailuak, mugitzeko desgaitasunak dituztenei aukera ematen dietenak gauzei heldu, eragin eta haletara iristeko: heltzeko pintza luzeak eta egokigailuak.

Estimulagailu funtzionalak”

“Hamargarrena. Zilar, platino eta paladio entregak, baita sakelako telefonoak, bideojokoen kontsolak, ordenagailu eramangarriak eta tableta digitalak ere.

NCE KODEA	Salgaia
7106 10 00	Zilar hautsa
7106 91 00	Zilar gordina
7106 92 00	Zilar erdi landua
7110 11 00	Platino gordina edo hautsa
7110 19	Platinoa. Gainerakoak
7110 21 00	Paladio gordina edo hautsa
7110 29 00	Paladioa. Gainerakoak
8517 12	Sakelako telefonoak eta hari gabeko beste sare batzuetakoak. Sakelako telefonoei dagokienez bakarrik.
9504 50	Bideokontsolak eta bideojokoen makinak, 950430 azpimultzoak izan ezik. Bideojokoen kontsolei dagokienez bakarrik.
8471 30	Datuak tratatu edo prozesatzeko makina automatikoak, eramangarriak, 10 Kg-tik beherakoak, prozesuko unitate zentral batez, teklatu batez eta pantaila batez osatuak, gutxienez ere. Ordenagailu eramangarriak eta tableta digitalei dagokienez bakarrik.”

Berrogei. Hemezortzigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hemezortzigarren xedapen iragankorra. Entitate taldearen araubide berezia.

2015eko urtarrilaren 1ean entitate taldearen araubide bereziaren babesean dauden entitateek, ez badituzte foru lege honen 108 quinquies artikuluko Bat eta Bi idatz-zatietan aipatzen diren atxikipen baldintza berriak betetzen, 2015eko abenduaren 31 arte jarraitzen ahalko dute aipatu araubide horren babesean, 2015eko urtarrilaren

1a baino lehen indarra zuen araudian eskatzen ziren atxikipen baldintzei lotuta.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek 2015eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Dena dela:

a) Hamaseigarren idatz-zatian xedatutakoa 2015eko apirilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

b) Hogeita zortzigarren idatz-zatian xedatutakoa 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

